

Katakarak argialetxean lizentzia askeen aldeko apustua egin dugu, horregatik kopiatu eta zabal ditzakezu gure liburu gehienak. Lizentzia hauek kultura zabaltzeko tresna onena dela uste dugun arren, tamalez, gure liburu guztiek ez daukate Creative Commons lizentzia, nahiz eta gehienek hala duten.

Gaur egun, teknologien garapenari esker fitxategi digitalen kopia pribatuak egitearen kostua doakoa da, horrek kulturearen irisbide demokratikoan aurrerapen handia ekar dezake.

Halere, liburuak digitalki doan egon daitezen kostu handia izan dute aurretik. Lagun askoren lana dago atzean eta diru inbertsioa (eskubideen erosketa, itzulpena, diseinua, make-ta lanak eta edizioa). Horregatik, gure testuak libreki eskuragai egon daitezen laguntzeko emaitza bat egin dezazun nahi genuke.

Eyal Weizman

HIRI-GERRA PALESTINAN

*Okupazioaren arkitektura
eta estrategia militarra*

Eyal Weizman

HIRI-GERRA PALESTINAN

*Okupazioaren arkitektura
eta estrategia militarra*

Itzulpena: Amaia Astobiza Uriarte

Hitzaurrea: Itsaso Larramendi Elexgaray



katakarak
liburuak

Jatorrizko izenburua (2017): *Hollow Land* liburuko *Urban Warfare: Walking Through Walls*

Egilea: Eyal Weizman

Jatorrizko lizentzia: © Eyal Weizman

Hitzaurrea: Itsaso Larramendi Elexgaray

Itzultzailea: Amaia Astobiza Uriarte

Barruko mapa: Карта Палестины (1898), Domeinu publikoa

Diseinua: Koldo Atxaga Arnedo

Lehenengo edizioa: 2024ko iraila

Edizioa eta maketazioa: **Katakarak Liburuak**

Kale Nagusia 54-56

31001 Iruñea

argitaletxea@katakarak.net

www.katakarak.net

@katakarak54

Liburu honek Eusko Jaurlaritzaren Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren laguntza jaso du

ISBN: 978-84-10316-02-7

ISNI: 0000 0005 1330 6065


Lege gordailua: NA 1719-2024

Inprimaketa: Alzate Grafikak

AURKIBIDEA

ARGITALETXEAREN OHARRA	11
HITZAURREA (Itsaso Larramendi Elexgaray)	17
SARRERA	25
BAT	
Erlauntzak	35
BI	
Balataren aurkako eraso	41
HIRU	
Alderantzizko hiri-geometria	53
LAU	
Suntsipen bidezko diseinua.....	61
BOST	
«Suntsiketa adimenduna»	71
SEI	
Horma deshormatuz.....	73
ZAZPI	
Heriozko teoria.....	79
ZORTZI	
Gatazka instituzionalak	89





Иерусалим (Иерусалим)

Асорь

Иерусалим

На Меромъ (самозатопное)

Висаида Юли

Валернаумъ

Голань

Тивериада

Гадара

Эдрия

Гессурь

Тераца

Б. Давидъ

Андоарь

Иерусалим (Сифроноисъ)

Баниъ

Иерусалим

Иерусалим

Иерусалим

Иерусалим

Иерусалим

Иерусалим

Иерусалим

Иерусалим

Иерусалим

Иерусалим

Иерусалим

Иерусалим

ARGITALETXEAREN OHARRA AUTOPSIARAKO FROGAK

— Gerra batek ikuskizun aparta izan behar du.
John Dos Passos

Gure harreman modernoan historia konkistaren eta dominazioaren historia da: gaua argi elektrikoarekin, zerua hegazkinekin, itsasoa itsasontziekin, gorputza medikuntzarekin, gure inguruko tenperatura aire egokituarekin eta abar.
Hartmut Rosa

1955ean argitaratu zuten Bertolt Brecht-en *Kriegs-fibel* [*Gerraren alfabetoa*], autorea hil baino urtebete lehenago. Lan hura oso aspaldi hasi zen lantzen Brecht, Bigarren Mundu Gerraren garaian. Gainera, *Kriegs-fibelen* marko historikoa 1918an hasten zen: ordura arte erakunde bereko kide izan ziren sozialdemokraziako zuzendaritzako lider batzuek, burgesiarekin eta Alemaniako armadaren sektore erreakzionario eta bortitzenarekin batera, iraultza-saiakerak zapaldu zituzten, eta milaka lagun hil (tartean, Rosa Luxemburg eta Karl Liebknecht espertakistak).

Gerraren alfabetoak bi berezitasun ditu. Alde batetik, aukera ematen digu ikusteko nola artikulatzen zituen Brechtek –Benjamin-ek bezala–, gogoetarako,

garaiko irudiak –egunkari eta aldizkarietakoak, ikusizko artistenak, prentsa-txatalak– eta haien irakurketak –oharrak–. Beste berezitasuna Brechtek berak azaldu zion 1956ko uztailaren 26an (hiltzeko oso egun gutxi falta zitzaizkionean), gutun bidez, Heinz Seydel lagunari:

Gerraren alfabetoa obrak batez ere liburutegietan egon behar du, kultura-etxeetan, eskoletan eta abarretan. Gustura idatziko nuke toki horietara, zeren gure artean egon behar du Hitlerren garaiko eta gerrako gertakizunen eta balorazioen desplazamendu honek.

Eyal Weizman-ek eta Forensic Architecture taldeak badute asko *Gerraren alfabeto* hartatik: irudiak hautatzen dituzte, dokumentuak gorde zehaztasunaren berme gisa, ikerketa eta politika nahasi eta sarraskia ulertzen saiatu, sarraskiaren egilea baino are zabalago eta sakonago.

Hiri-gerra Palestinan. Israelgo okupazioaren arkitektura eta estrategia militarra liburua ere hala dago osatuta. Israelgo mandatarien eszena pribatuak agertzen dira, armaden eskuliburuak, airetiko irudiak, diagramak. Horrela azalduta, esnobismo-ariketa bat izan zitekeen, funsgabea; ez da, baina. Baliabide bakoitza da ezinbestekoa, eta ez dago jauzirik; eta, baldin badago, ez da muinora iristeko bidexka gurutzatzen duen erreka baino zabalagoa; beraz, edonork egin dezake jauzi gaitetik orkatila bihurritu gabe, eta bestaldera iritsi.

Alegia, liburu hau ez da soilik arkitektoek eta estrategia militarrean interesatuek irakurtzekoa. Edo, bestela esanda, ez da artearen historia ikasi behar Jean Prouvé-k diseinatutako aulki baten aurrean begirada zorrozteko. Eta, modu berean, batek ez du geopolitikaren *freak* bat izan beharrik Israelgo Estatua Palestinan gauzatzen ari den garbiketa etnikoa eta kolonizazioa

ahalik eta ikuspegi kokatuenetik irakurtzeko, ezta hirigintza eta estrategia militarrekiko interesa izateko ere. Kazetaritza-kronika eta historia ez direlako denera iristen. Poema bat irits daiteke erradiografia bat iritsiko ez den tokira; adibidez, erakuts diezaguke anatomiaz.

Gerra eta gizakia

Izerditan eta gelako aire astuna nekez arnastuz, mahai ondoan eserita zegoen, aurrean zenbait mapa zabalik zituela, eta kanpotik iristen zitzaizkion urruneko soinuek buruko mina areagotzen zioten.

Adania Shibli

Historialarien eta filosofoen eztabaidagai klasiko bat da: berezkoa du gerra gizakiak, ala zirkuntantziala da? Hau da, abagune historikoak sortzen ote du gerra? Alegia: bakea, gerra, beste gizakien kontrako indarkeria... giza espeziearen ezaugarriei lotuta dago, ala ekonomiak, politikak eta moralak sortu eta mantentzen dute gerra?

Badakiguna da antzina-antzinatik existitzen direla gerrak. Sortu eta hasi egiten direla, diseinatu; eraikitzen direla gerra eusteko teoria militarrek eta errelato sozialak, jaso izan direla iraganeko gerren kontakizunak gizakiak eskura izan dituen baliabide, euskarri eta genero artistiko guztietan. Gure garaiaren aurreko laugarren mendean idatzitako Sun Tzu-ren *Gerraren antzea*¹ ezagunetik hasi eta Angela Davisen *Askatasuna, etengabeko borroka bat. Ferguson, Palestina eta mugimendu baterako oinarriak*² liburura arte, gerra ikertu eta ulertzeko ahalegina egin izan da.

1 Sun Tzu, *Gerraren antzea*, Txalaparta, 1995 Tafalla.

2 Angela Davis, *Askatasuna, etengabeko borroka bat. Ferguson, Palestina eta mugimendu baterako oinarriak*, Katakarak, 2016 Iruñea.

Badakigu ere XIX. mendean, teknologiak eta politikak bultzatuta, gerren suntsitze-maila zeharo aldatzen hasi zela, XX. mendeko bi mundu-gerretako sarraski masiboetara iritsi arte. Ondoren ere, Bigarren Mundu Gerraren ostean etenik gabe kontinente ia guztietan egon diren gerretan, sakondu eta zabaldu egin dira gizakia, hiriak eta natura suntsitzeko metodoak. Eta, halere, Palestinakoa oso molde ezberdineko gerra bat da.

Carl von Clausewitz (1780-1831) militar prusiarra XIX. mendean jazo zen aldaketaren teoriarari ezagunetako bat izan zen. Clausewitzen arrastoa ez zen iritsi soilik burgesiaren programa zabaltzen zuten armadetara. Carl Schmitt (1888-1985) filosofo eta jurista naziak *Partisanoaren teoria* hitzaldia eskaini zuen Iruñean 1962ko irailean; azaldu zuenez, Frantziako Iraultzaz (1789) geroztik bada gerra bat erregularra eta beste bat irregularra, baina ez hori bakarrik:

Gizateriaren garai guztietan, borroketan eta gerretan gerra- eta borroka-arauak egon dira; beraz, men ez egiteak eta arau-haustek ere egon dira.

Baina, esan bezala, Clausewitz ez zuten soilik kapitalaren aldekoek estudiatu. Parisko Komunaren (1871) porrota aztertzean, Lenin-ek eratorritako ondorio nabarmenetako bat izan zen Komunaren porrota porrot militar bat izan zela eta, beraz, erabateko garaipena lortzeko garaipen militarra ere erdietsi behar zuela langile-klaseak. Hala, teoria militar hura askapenaren tradizio zenbaitetara eta beste hainbat eremutara zabaldu zen.

Parisko Komunaren porrotaren atzean, halere, gerraren ezinbesteko aliatu bat zegoen: Parisko hirigintzak 1848ko iraultzaren ostean izan zuen diseinua.

Etorkizuneko iraultzak saihesteko eta botere militarri lana errazteko suntsitu zen hiria. Operazio politiko hura zuzendu zuen Georges-Eugène Haussmann arkitektoa burgesiaren heroi bilakatu zen: klase-gerra langile jendearen aurkako arkitekturaren bidez garatu nahi izan zuen.

Sarri, akaso, duela bi mende baino puska inozoagoak ez ote garen otu dakiguke gaur egungo Euskal Herrian, normaltasun osoz onartu baitugu lehen autoei eta orain oinezkoei zuzendutako kale eta plazetan usoak apur-lapurretan baino lasaiago ikustea argi urdinekiko polizia-auto eta -furgonetak patruila-lanetan. Ez ote dagoen orain inoiz baino babesgabeago polizia-indarkeriaren aurrean jende xehea, zer esanik ez sozialki baztertuak edo eskakizunik ñimiñoenen aldarrikatzaileak.

Palestinaren suntsiketaren bibliografia

Euskaraz hainbeste alorretan bezala, ia hutsetik eta hilabete gutxiren buruan sortu da, 2023ko aza-roaz geroztiko testuinguru jasanezinean, Palestinaren suntsiketari buruzko liburuen bildumatxoa. Espero dezagun aurreko hitz horiek aurki zaharkitzea, aurrerantzean askoz lan gehiago argitaratuko direlako; bitartean, baina, aipa ditzagun gure artean dauzkagunak: Joe Sacco-ren *Palestina*³ komikia; *Palestinaren okupazioaz eta kolonizazioaz*,⁴ Perry Andersonnek New Left Review aldizkarirako idatzi zituen teoria politikoko bi testurekin osatua; Adania Shibli-ren *Detaille xume bat*⁵ eleberri entzutetsu eta jazarria; Rashid Khalidi historialariaren *Ehun urteko gerra Palestinarren aurka* (UEU,

3 Joe Sacco, *Palestina*, Astiberri, 2023 Bilbo.

4 Perry Anderson, *Palestinaren okupazioaz eta kolonizazioaz*, Katakarak, 2024 Iruñea.

5 Adania Shibli, *Detaille xume bat*, Igela, 2024 Iruñea.

2024), saiakera mardul ezinbestekoa; eta Mohammed el-Kurd idazle eta kazetariaren *Rifqa* (Katakarak, 2024) poema-liburu zorrotza.

Bat-bateko grinak ezin du berenez bete hamarkadaz hamarkada eraikiz joan den hutsune bat. Nolanahi ere, aliantza bat erakusten du, itzultzaile ezinegonen eta mobilizazio sozial hutsetik haraindi joateko bulkada duten irakurleen arteko elkartasun bat.

Egin dezagun, bada, David Harvey-k behinola aldarrikatu bezala, murgiltze espekulatibo bat ezagutzen ez dugun horretan ere, erle langileak bezala geografia historikoaren objektu izateari utzi eta subjektu aktibo bilakatzeko, gizakiaren aukerak kontzientziaren mugetara eramateko. Izan ere, muga horiek bilatu eta ezagutzea da armen eta diruaren sarraskiak eteteko modu bakarra.

Iruñea
2024ko iraila

HITZAURREA

OKUPAZIOAREN POLITIKA ESPAZIALAK

Banaezina banatzeko saiakera desesperatuan eta lurralde subirano baten gainean herrialde berri bat sortzeko helburuarekin, Israelgo estatuak hamar-kadak daramatza azpiegitura eta politika espazial oso konkretuak ezartzen Palestinako lurraldeetan. Okupazio-prozesu horretan, lurralde-planifikazioa funtsezko tresna izan da, estrategia militarrekin batera, palestinarrena zen lurraldea kolono sionistek kontrolatutako eremu bilakatzeko. Ezaguna da munduan Israelek duen gaitasun militarren handitasuna, baina ez da horren ezaguna estrategia militarren barruan praktika espazialak duen garrantzia, ezta horren irakurketa politiko eta sistematikoa ere. Eta hori da, hain zuzen ere, Eyal Weizmanek lurralde palestinarren kolonizazio-prozesua ulertzeko egiten digun ekarpenik baliotsuena: Israelek garatutako estrategia militarren eta okupazio-politiken irakurketa espaziala. Agerian jartzen digu nola arkitektura, hirigintza eta lurralde-plangintza ideologikoak diren oso, eta nola erabil daitezkeen pertsonen gaineko biolentzia ezartzeko tresna beza-

la: bai murru baten sendotasunak duen modu bortitz eta esplizituan, baina baita kale-zabalera konkretu baten zibilen gaineko kontrol-baldintzak errazteko duen modu sotil eta ikusezinean ere.

Arkitektura forentsea deritzon diziplinaren bitartez, Weizmanek politikaren materialtasun espaziala aztertzen du. 1980ko hamarkadan sortutako terminoa da arkitektura forentsea, eta, funtsean, gatazka legeletan froga arkitektonikoak aplikatzean datza. Diziplinaren jarduera ohikoena eraikuntza-akatsak identifikatzea izaten da, aseguru-etxeen arteko auzietan edota eraikinen ikuskapen teknikoetan froga modura aurkezteko.

Arkitektura forentseak eraikinen inguruko kontu oso oinarritzko bat du muinean: eraikinak ez dira estatikoak. Eraikinek deformazio materialak jasaten dituzte inguruko indarren ondorioz, eta mutazio formal horiek erregistro-prozesuak ere badira, inguruan gertatzen denaren informazio-arrastoak. Dela fenomeno naturalek edo gizakion ekintzek ezarritako indarrak, dela urteen higadura geldoak edo bat-bateko gertaerak eragindakoak, testuinguruak etengabe eragiten dio inguru-eraikiari. Eraikinek, beraz, beren inguruaren sentzore bezala funtzionatzen dute, eta, alde horretatik, dokumentu historiko bezala uler daitezke, hau da, diseinatu, eraiki eta erabiltzen dituzten pertsonen biografiez harago doazen objektu historiko eta material gisa. Baina eraikinek sentzore izateko duten gaitasun hori motibazio politikoekin erabiltzen bada, eraikinak sentzore politiko bezala ere irakur daitezke, eta arkitekturaren eta boterearen arteko harremanak azaleratzeko erabili. Izan ere, hiriak, eraikinak eta hiri-hondakinak gatazka-egoeren agertoki direnean, arkitektura azterketarako marko eta tresna funtsezko bihurtzen da.

Weizmanek Forensic Architecture agentzia sortu zuen 2010ean, Londresko Goldsmiths Unibertsitatearen barruan, eta horrexetan egiten dute lan: arkitektura forentsea diziplina arteko alor akademiko bezala garatzen dute, eta tresna politiko bezala baliatu. Estatuak eta korporazio handiek ezarritako biolentzien eta eragindako giza eskubideen urraketen aurrean, arkitektura forentsea praktika zibil eta politiko gisa erabiltzen du Forensic Architecturek. Gudetan, gatazka armatuetan eta biolentzia modu sistematikoan aplikatzen den egoeretan, estatuaren informazioarekiko monopolioa kolokan jartzen dute, eta froga legalak sortzen dituzte, kontakizun ofizialak arrakalatzeko. Hiri-inguruek gertaerak erregistratzeko duten gaitasuna baliatzen dute, bai plano materialean, noski, baina baita plano mediatiko eta digitalean ere, hiri-inguruak kameraz, neurgailuz eta telefono mugikorrez beteta baitaude. Aparatu digitalek erregistratutako informazioak inguru eraikian dauden arrastoekin batera artikulatzen dituzte, eta gertaerak berreraikitzen dituzte, errepresentazio-tekniken eta hizkuntza zinematografikoaren bitartez. Infografiak, 3Dko ereduak, kartografia interaktiboak edo bideoak osatuz, ebidentzia arkitektonikoak sortzen dituzte, foro legal eta politikoetan gizateriaren aurkako krimenak epaitzeko. Finean, frogak ekoizteko baliabideak hartzen dituzte, eta zientzia forentsea salaketa publikoak oinarritzeko praktika zibil eta konprometitu gisa erabiltzen dute.

Zehazki, hori da azken hilabete luzeetan Israel gauzatzen ari den sarraskia *genozidiotzat* jo dadin egiten ari diren lana: eraso bakoitzak eragiten duen suntsipen isolatuaren atzean ezkututzen diren errepikapen eta patroiz sistematikoak identifikatu eta ikusarazi, gizarte palestinarra eta haien lurraldea suntsitzeko

intentzionalitatea frogatzeko. Baina auzi honetan luze daramatzate Weizmanek eta Forensic Architecture agentziak posizionatuta, eta horren froga dira garatu dituzten hamaika ikerketak eta argitaratu dituzten hainbat liburu.⁶ *Hollow Land* (Verso, 2007) da horietariko bat, eta esku artean duzun liburua lan zabalago horren parte da, zazpigarren kapitulua zehazki. *Hollow Land. Israel's architecture of occupation* lanean, Palestinaren okupazio- eta kolonizazio-prozesua espazioaren dimentsiotik aztertzen du Weizmanek, 1967ko Sei Eguneko Gerratik gaur arte, ulertzeko eta ikusarazteko nola baliatu diren pentsamendu espaziala, planifikazio-tresnak, hirigintza-legeak eta diseinu arkitektonikoa palestinarrei lurra erauzteko eta haien gaineko kontrola eta biolentzia ezartzeko. Lurra eskuratzeko borroka batez ari garen heinean, politikarako funtsezko tresna da espazioaren eraikuntza, eta arkitektura eta lurralde-plangintza, berriz, gudaren jarraipen estalia.

Ez da kasualitatea Zisjordanian zehar sakabanutako kokaleku kolonoak mendi-muino garaienetan egotea; lurraz jabetzeko helburuarekin, kolonizatzaileek XIX. mendeko otomandarren lege bat baliatzen dute. Legeak, jatorrian, lurraren laborantza bultzatzea zuen helburu, Inperioaren zerga-bilketa handitzeko: lur-jabe batek ez bazituen bere lurak hiru urtez jarraian lantzen, lursail horiek lur publiko bihurtzen ziren. Lege hori tokiko kulturaren zantzu bezala mantendu zen ingelesan eta jordaniarren mandatupean; israeldarrek, ordea, Zisjordaniako lurren ia % 40a eskuratzeko baliatu zuten 1980ko hamarkadan. Jakina denez, nekazaritzarako eremu aproposenak mendimagalak eta bailarak dira, eta palestinarrek ez zituzten lantzen muino harritsu eta haizetsuak, edo abeltzain-

6 Forensic Architecture-ren webgunean ikusgai: www.forensic-architecture.org

tzarako erabiltzen zituzten; hala, Israelek publikotzat jo zituen, eta beretzat hartu. Emaitza: bertikalki banatutako bi errealitate antagoniko, elkarrengandik oso hurbil kokatuak. Palestinarrak haranetan, israeldarrak tontorretan.

Bi errealitate horiek elkarri lepoa emanez funtziona dezaten, arkitektura funtsezko bitarteko bilakatzen da berriro. Batzuk eta besteak banatzen dituzten muga zatikatuak harresi batez inguratu, eta lurralde okupatuak errepidez konektatzen dira; hala, bi latitude topografiko bereizi sortzen dira. Azpiegitura fisikoei, beraz, lurraldea geruza paraleloetan habitatzea ahalbidetzen dute: kolonia israeldarrak zubi-errepideen edo lurrazpiko tunelen bitartez lotzen dituzte lurralde menditsuan zehar, eta eremu palestinarrak azpian edo gainean uzten dituzte.

Kokaleku israeldarren hiri-forma, gainera, mui-noetatik inguru lauagoa kontrolatu ahal izateko dago diseinatua. Topografia maldatsura egokitzen den eraztun formako hiri-egiturak aukera ematen du kolonoen etxebizitzetatik ikusmen bidezko kontrola ezartzeko. Kolono zibilak gobernu israeldarraren begi bilakatzen dira, estatuaren segurtasun-neurrien zerbitzari. Horrela, paisaian zehar sakabanatutako begiratokiek kontrol etengaberako matrize bat osatzen dute.

Jerusalemgo harriaren sinbolismo sakratuaz hitz egin genezake, mugen elastikotasunaz, aire-espazioaren okupazioaz edo iheslari-esparruen *haussmannizazioaz*,⁷ askotarikoak baitira *Hollow Land* lanean jasotzen diren gakoak kolonizazioaren estrategia

⁷ *Haussmannizazio* terminoak Georges-Eugène Haussmann-ek XIX. mendean Paris berreraikitzeke garatu zuen planari egiten dio erreferentzia. Hiri zaharrenden Erdi Aroko kale irregularrak etorbide zabalekin ordezkatu zituen, ordena publikoa mantentzeko eta langileen altxamenduen kontrako errepresioa errazteko.

espazialak ulertzeko. Izan ere, neurri edo ekintza bat zenbat eta basakeria-maila txikiagokoa izan, orduan eta errazagoa da hura onartzea eta barneratzea; eta, behin normalizatuta, sarriago aplikatu ahal izango da biolentzia gisa ulertua izan gabe, kontrako erantzunik jaso gabe. Hor dugu arkitekturaren tranpa nagusia: esplizituki bortitzak ez diren hainbat praktika eta molde izan ohi ditu, eta, horregatik beragatik, intentsitate txikiko gatazkak denbora luzez hedatzeko eta modu estalian sostengatzeko gaitasuna du.

Ez kanpo, ez barru

Lurralde berean bi estatu eraiki nahiaren paradoxak espazioan pentsatzean izan ohi dugun oinarritzko ideia bat jartzen du kolokan: kanpoaldearen eta barrualdearen arteko banaketa dikotomikoa.

Mapek marrazten dituzten espazio politikoak azalera jarraituek osatutako lurraldeak izan ohi dira, etenik gabeko mugek zedarrituak, herrialdeak bata bestearen segidan kokatzen dituztenak. Palestinaren kasuan, baina, beste logika konplexuago batzuk dira nagusi. Muga ez da lurraldea modu argian banatzen duen marra bakar eta jarraitua, geografia berean zehar zatika zabaltzen den lerro eten eta kiribildua baizik; lurralde-irlak osatzen dituen eta segregaziorako baldintzak ziurtatzen dituen hesi-multzoa. Osloko Akordioetan zehaztutako eremu palestinarrek artxipelago bat osatzen dute: israeldarrek kontrolatutako itsasoan zehar banatutako irla sorta.⁸

Barrualde eta kanpoalde etengabe bat sortzen duen muga hori, gainera, ez da harresi «soil» bat, kon-

8 Ikus Léopold Lambert-en *The Palestinian Archipelago: A Metaphorical Cartography of the Occupied Territories* (2012) edo Julien Boussac-en *L'archipel de Palestine Orientale* (2009) mapak.

trol-aparatu eta sistema konplexuen sare bat baizik, palestinarren sarrera- eta irteera-fluxuak erregulatu dituen. Bryan Finoki-k dioenez, palestinarren gaineko kontrolak ez dio kartzela-fortifikazioaren ideari erantzuten (idea horretan erraz bereiz daiteke barruan eta kanpoan dagoena).⁹ Horren ordez, lurralde-irla sakabanatuetan bazterketa-espazioak sortzen dituzte sarrera- eta irteera-aukerak mugatzean, pertsonen espazioei burujabetza kentzean. *Checkpoint*ak funtsezko elementu dira horretarako: harresiaren lerroan edo Zisjordaniako hirien sarreretan kokatzen dira, eta palestinarren eguneroko mugimendua kontrolatzea dute helburu, haien mugitzeko gaitasuna ahalik eta txikiena izatea, Palestina barruan barrualde hertsia sortzea. Hala, kanpo/barru paradigmaten erabateko haustura gertatzen da, espazio zatikatuaren kartzelaratzeko etengabe bat, edozein bereizketa argi baino are bortitzagoa izan daitekeen ambiguitasuna.

Kanpoaldearen eta barrualdearen arteko ambiguitasun hori da Israelgo Armadak iheslari-esparru palestinarrak erasotzeko garatu zuen estrategia militarren oinarria, eta hala ikusiko dugu *Hiri-gerra Palestinan* lanean. Erresistentzia palestinarraren gotorleku ziren bizitegien hiri-bilbe trinko eta desordenatuak berrinterpretatu zituen armadak, eta hiriaren oinarriko logikak deseraiki, interbentzio-molde berriak praktikan jartzeko. Kaleak debekatutako igarobide bilakatu zituen, eta etxebizitzaren barrualdeak, berriz, igarobide eta gatazka armatuaren agertoki. Israelgo soldaduek elkarri itsatsitako etxebizitzaren paretak zeharkatzen dituzte, zizare batek lur azpian egingo lukeen bezala. Espazio itxi eta partzelatuen mugak

9 Léopold Lambert, *Weaponized Architecture. The impossibility of innocence* (2012).

apurtzen dituzte, eta hormen trinkotasuna gainditzen. Solidotasuna iragazkor bilakatzen dute, hormak zulatuz, tiroekin zeharkatuz edo gailu teknologikoen bitartez bestaldeko giza bizitzak hautemanez.

Gauza asko izan daitezke arkitektura: kontenplaziorako arte-objektu, historiaren sedimentu edo beharrezko bizitoki. Auzi ekonomiko, sinbolo turistiko edo autoeraketarako oinarri. Mila modu daude arkitekturara hurbiltzeko, baina modu horiek gurarizkoak dira beti, intentzio agerikoago ala disimulatuagoekin. Eta asmoak beti hor dauden heinean, arkitektura tresnamultzo bat ere bada, eraikitakoaren atzean gordetzen diren ikuspegi politikoak deskodifikatzeko. Bitartekoak ematen dizkigu gizartearen askotariko geruzak esploratzeko, gatazkak azaleratzeko eta gure nahierako espazioak sortzeko.

Itsaso Larramendi Elexgaray
Bilbon, 2024ko uztailean



SARRERA

Denbora luzez —zenbait urtez, egia esan—, gogoan erabili dut bizitzaren esparrua —bios deritzona— grafikoki mapatean islatzeko ideia. Hasiera batean, mapa arrunt bat irudikatzen nuen, baina orain estatu nagusi baten hirigune bateko mapa bat erabiliko nuke, halakorik balego. Ez dago, noski, ez baitakigu zer agertokitan gertatuko diren etortzear diren gerrak.

Walter Benjamin¹

Jada ez dakit zer dagoen hormaren atzean, jada ez dakit horma bat dagoela, jada ez dakit horma hori horma bat dela, jada ez dakit zer den horma bat. Jada ez dakit nire apartamentuan hormak daudela, eta hormarik gabe ez legokeela apartamenturik.

Georges Perec²

«Sartu barrura», agindu zuen ingeles trakets eta histerikoan. «Barrura!». Eta nik: «Barruan nago, baina!». Segundo batzuk behar izan nituen ohartzeko soldadu gazte hura barrua birdefinitzen ari zela eta adierazi nahi zuela ikusten ez den leku bat, berak bederen ikusten ez zuena. Gogaikarria zitzaion ni «barru»aren «kanpo»an egotea.

Nuha Khoury³

1 Walter Benjamin, *One-Way Street and Other Writings*, itz. Edmund Jephcott eta Kingsley Shorter, Londres eta New York: Verso, 1979, 295.

2 Georges Perec, *Species of Space and Other Pieces*, ed. eta itz. John Sturrock, Londres: Penguin Books, 1999.

3 Nuha Khoury, «One Fine Curfew Day», Jerusalem: Miftah (www.miftah.org).



Balatako iheslari-esparrua (Nir Kafri, 2002)

Israelgo Armadako unitateek 2002ko apirilean Zisjordaniako Nablus hiriaren aurkako erasoan egindako maniobrak «alderantzizko geometria» bati jarraitu zion, haien komandante Aviv Kochavi jeneralaren hitzetan, eta Kochavik berak honela definitu zuen alderantzizko geometria hori: hiri-sintaxiaren berrantolamendua, zenbait ekintza mikrotaktikoren bidez gauzatua. Soldaduek saihestu egin zuten hirian zeharreko mugimenduaren logika gidatzen duten elementuak erabiltzea, hala nola kaleak, errepideak, hiribideak eta lorategiak, baita eraikin baten ordena gidatzen dutenak ere, hala nola kanpoaldeko ateak, barrualdeko eskailerak eta leihoak. Aitzitik, zuloak egin zituzten mehelinetan, sabaietan eta zoruetan, eta horietan zehar mugitu ehun metroko barnebidetan, guztiak ere aldameneko hiri-egitura trinkotik aparte-koak. Milaka soldadu israeldar eta ehunka gerrillari palestinar aldi berean maniobratzen ari ziren Nablus

hirian, eta, halere, hain zeuden haren egiturarekin bat eginak, ezen airetik begiratu zuten gero guztiz ikusezinak bailirateke une orotan. Mugimendu-mota hori taktika militar baten parte da, zeinari armadak, antolamendu kolektiboko animalien mundutik hartutako metafora bat erabiliz, «erlauntzaren teknika» edo «izurriaren teknika» esaten baitio. Etxe barruko espazioak zeharkatzean, maniobra horrek barrualdea kanpoalde bihurtu zuen, eta eremu pribatuak bide publiko. Borrokak egongela erdi eraitsietan, logeletan eta korridoretan gertatzen ziren. Mugimendu-eredua ez zen espazioaren araberakoa; aitzitik, mugimenduak berak sortzen zuen espazioa bere inguruan. Ia hiri osoko horma, sabai eta zoruetan zeharreko hiru dimentsioko mugimendu horrek berrinterpretatu, suntsitu eta berrosatu egin zuen sintaxi arkitektoniko eta hiritarra. «Hormak oinez zeharkatze»ko taktikak garatzeko, ezinbestekoa zen hiria ulertzea ez soilik gerrarako leku gisa, baizik eta gerraren benetako ingurune gisa: materia malgu bat, likidoa ia, beti kontingentea eta mugimendu etengabekoa.

Stephan Graham geografo britainiarraren arabera, Gerra Hotza amaitu zenetik hona «esparru intelektual» zabal bat eratu da nazioartean; «itzalpeko munduak, hiria ikertzeko institutu militarrez eta prestakuntza-zentro estrategikoz osatuak», hiriguneetako operazio militarrek beste ikuspuntu batetik planteatzen dituztenak.⁴ «Itzalpeko mundu» horien

4 2003ko urtarrilean era horretako konferentzia batzuetan izan nintzen; izan ere, Stephen Graham-ek bere sarreraren erdia eman zidan, zeinak 1.000 libera balio baitzuen, urteroko Hiri-gerragintzari buruzko Konferentziaren bigarren egunean parte hartzeko. Jardunaldia SMI deituriko Londresko segurtasun-institutu batek antolatu zuen. Surrealista zen: han ziren militarrek, arma-trafikatzailak eta NATOk, Erresuma Batuko, AEBko eta Israelgo ikertzaileak, baita RAND erakundeko ordezkariak ere, eta hiriguneetako operazio militarrei eta funtsezko ekipamenduari buruzko

sarea gero eta handiagoa da, eta barne hartzen ditu eskola militarrek eta armaden artean ezagutza partekatzeko mekanismoak; esate batera, mintegiak eta prestakuntza-saio kolektiboak. Hiriguneetako bizitza ulertzeko ahaleaginean, soldaduek ikastaro trinkoak egiten dituzte zenbait diziplinatan trebatzeko, hala nola hiri-azpiegitura, sistema konplexuen analisia, egiturazko egonkortasuna eta eraikuntza-teknikak, eta gaur egungo akademia zibilean garatutako askotarikoa teoria eta metodologiak estudiantzen dituzte. Beraz, harreman berri bat sortzen ari da elkarri lotutako elementuz osatutako triangelu batean, eta elementu horiek dira idazlan honetan aztertu nahi ditugunak: gatazka armatuak, ingurune eraikia eta bi horiek kontzeptualizatzeko sortutako hizkera teorikoa. Gaur egungo instituzio militar batzuen irakurgai-zerrendetan 1968ko maiatzarekin lotutako obrak daude (batez ere espazioaren nozioa hedatu zuten teorialarien idatziak, hala nola Gilles Deleuze, Félix Guattari eta Guy Debord), bai eta hirigintzari eta arkitekturari buruzko abangoardiako proposamen berriagoak ere, 1990eko hamarkadatik ugarituz joan direnak eta teoria postkolonial eta postestrukturalistez baliatzen direnak. Simon Marvi hiriei buruzko aditua da; beraren ustez, «itzalpeko mundu» arkitektoniko militarra hiriak ikertzeko programak garatzen ari da, eta programa horiek unibertsitate-programa guztiek batera baino diru gehiago jasotzen dute eta haiek baino anbiziotsuagoak dira.⁵

ikuspuntu praktikoa eta teorikoa partekatu zituzten, bai hitzaldi-aretoan, bai afaritan. 2002an, antzeko jardunaldi militar bat antolatu zuen Haifa Unibertsitateko Geografiako Fakultateak; horri buruz gehiago jakiteko, ikus Stephen Graham, «Remember Falluja: Demonizing Place, Constructing Atrocity», *Society and Space*, 2005, 23, 1-10, eta Stephen Graham, «Cities and the "War on Terror"», *International Journal of Urban and Regional Research*, 30, 2006ko ekainak 2, 255-276.

5 Simon Marvin, «Military Urban Research Programs: Normalising the

Autore batzuen ustez, XX. mende amaierako kultura kapitalistan zimeldu egin da hein batean pentsamendu kritikarako espazioa; arrazoia dutela onartuta ere, argi dago testuinguru militarrean aurkitu duela loratzeko tokia.

Arkitekturaren patua beste diziplina baten —militarraren— zoriaren bidez ezagutu nahian, liburu honetan Israelgo Armadaren bigarren Intifadako hiri-gerrarako estrategiak aztertuko ditugu, baita teoria kritiko postmodernoaren, praktika militarren eta azken horrek Israelgo Armadan eragin zituen gatazka instituzionalen arteko harreman emergentea hasiberria. Analisi horrek ekarriko digu, orobat, praktika horien ondorio etiko eta politikoei buruzko gogoeta bat.

Azken urteetan, eta mundu mailako joerari jarraituz, Israelgo Armadak institutu eta ikerketa-zentro ugari sortu ditu bere egiturako maila desberdinetan, eta haiei eskatu izan die Lurralde Okupatueta garatutako zaintza-lan basatiari —«gerra zikinak» edo «intentsitate txikiko gerrak»— lotutako erantzun estrategiko, taktiko eta antolamenduzkoak birkonzeptualizatzeko. Zentro horien artean, nabarmena da Operation Theory Research Institute [OTRI: Teoria Operatiboaren Ikerketa Institutua]; erakunde hori hamarkada batez egon zen martxan, 1996aren hasieratik 2006ko maiatzera arte, Shimon Naveh eta Dov Tamari brigada-jeneral erretiratuen zuzendaritzapean. OTRIk beste zenbait ofizial erretiratu ere enplegatu zituen, guztiak brigada-jeneralak, Israelgo Armadako gorputz gutzietakoak. Soldadu ohiez gain, ikertzaile gazte ugari ere hartu zituen, gehienak Filosofiako edo Zientzia

Remote Control of Cities» (artikulua), konferentzia honetan aurkeztua: *Cities as Strategic Sites: Militarisation Anti-Globalization & Warfare*, Centre for Sustainable Urban and Regional Futures, Manchester, 2002ko azaroa.

Politikoetako doktoregaiak Tel Aviv-eko Unibertsitatean. 2003ra arte, ikasgai nagusia, Ikuspegi Operatibo Aurreratua, nahitaezkoa izan zen Israelgo goi-mailako ofizial guztientzat. Navehri egin nion elkarrizketa batean, jeneralak honela laburbildu zuen OTRIren misioa: «Jesusen Lagundiaren gisakoak gara. Gure xedea da pentsatzen irakastea soldaduei eta haiek horretan trebatzea... Eskola bat sortu dugu, eta ikasketa-plan bat garatu, “arkitekto operatiboak” trebatzeko».⁶ Estatu Nagusiko buruzagi ohi Moshe Yaalon-ek, zeinak OTRIren jarduerak sustatu baitzituen, erakundearen garrantzia azaldu zuen hura 2006ko maiatzean itxi ondoren: «Gaur egun eskualde-buruzagitzetan eta kabinete nagusian erabiltzen den ebaluazio operatiborako metodoa OTRIekin elkarlanean garatu zen... OTRik estatubatuarrekin ere lan egin zuen, eta guk garatutako metodoak irakatsi zizkien». OTRIren eta AEBko armadaren arteko elkarlana David Pere teniente koronelak egiaztatu zuen, AEBko marineetako bera, eta haren *Doktrina operatiboaren eskuliburuaren* egilea: «Navehketa OTRik ikaragarritzko eragina izan dute, bai diskurtso intelektualean, bai AEBk gerraren dimentsio

6 Teoria Operatiboaren Ikerketa Institutuaren (OTRI) irakurgaien zerrendetako batek izenburu hauek jasotzen zituen: Christopher Alexander, *The Endless Way of Building: Patterns of Events, Patterns of Space, Patterns of Language*; Gregory Bateson, *Steps to An Ecology of Mind and Mind and Nature: A Necessary Unity*; Beatriz Colomina (editore gonbidatua), *Architecture Production*; Gilles Deleuze eta Felix Guattari, *A Thousand Plateaus and What is Philosophy*; Clifford Geertz, *After the Fact – Two Countries, Four Decades, One Anthropologist*; Catherine Ingraham, *Architecture and the Burdens of Linearity*; Rob Krier, *Architectural Composition*; J.F. Lyotard, *The Post-Modern Condition: A Report on Knowledge*; Marshall McLuhan eta Quentin Fiore, *The Medium is the Massage: An Inventory of Effects*; W.J. Mitchell, *The Logic of Architecture*; Lewis Mumford, *The Myth of the Machine*; Gordon Pask, *Cybernetics of Human Learning*; Ilya Prigogine, *Is Future Given? The End of Certainty and Exploring Complexity*; John Rajchman, *The Deleuze Connections*; Bernard Tschumi, *Questions on Space, Architecture and Disjunction* eta *Event-Cities 2*; eta Paul Virilio, *The Lost Dimension*.

estrategikoa ulertzeko garaian. AEBko itsas armadak ikerketa bat egiteko mandatua eman du... nagusiki Shimonen [Naveh] lanetan oinarritua. Gaur egun, ezinezkoa da Estatu Batuetan gai militarrei buruzko hitzaldi batera joatea eta Shimonen [lanaren] inguruko eztabaidarik ez entzutea...». Pereren esanean, armada britainiarra eta australiarra ere OTRIn garatutako konzeptuak txertatzen ari dira beren doktrina ofizialetan.⁷

Israelek hiri-maniobretarako ondutako doktrina militarra beste armadentzat ere erreferentziazko bihurtu izanaren arrazoi nagusietako bat zera da: Intifadaz gero, palestinarren eta israeldarren arteko gatazkaren gertalekua argiro hiritarra izan da. Erasoak, bai israeldarrenak bai palestinarrenak, etsaiaren hirietan gauzatu dira nagusiki. Bestalde, Israelek hobetu egin zituen lurreko eta aireko erasoetarako metodoak bigarren Intifadan (Al-Aqsa), batez ere Defentsa Murru operazioan; orduko hartan, 2002ko martxoaren 29tik aurrera, eta palestinarrek Israelgo hirietan egindako eraso suizida sail baten ondoren, Israelek etengabe eraso zien Palestinako hiriei. Erasoen jomugak Palestinako askotariko hiri-inguruneak izan ziren: Ramala, hiri modernoa; Nabluseko kasbah, gune historiko jendetsua; Betleem, hiri sakratua nazioartean; eta Jenin, Balata eta Tulkarem iheslari-esparruak. Eraso horien gertaleku hiritarra dela eta, atzerriko hainbat armadak interes handiz behatu zituzten israeldarrak, batez ere estatubatuarrak eta britainiarrak, zeinak garai hartan Iraken inbasioa eta okupazioa prestatzen ari baitziren.⁸ Hain justu ere, Defentsa Murru operazioak iraun

7 Aipua hemengoak dira: Caroline Glick, «Halutz's Stalinist moment: Why were Dovik Tamari and Shimon Naveh Fired?», *Jerusalem Post*, 2006ko ekainak 17.

8 «U.S. Marines uses Israeli Tactics in Falluja Baghdad», *Middle East Newslines*, 6 (418), 2004ko azaroak 10; Justin Huggler, «Israelis trained US troops in Jenin-style urban warfare», *The Independent*, 2003ko martxoak 29; Yagil Henkin, «The Best Way Into Baghdad», *New York*

bitartean, Zisjordania hiri-gerraren laborategi erraldoi bilakatu da, ehunka zibilen bizitzen, ondasunen eta azpiegituren bizkar.

Navehrekin izan nuen elkarrizketan, bigarren Intifadaren lehen urteetan Israelgo Armadak metodoak aldatu izanaren arrazoiak azaldu zizkidan jeneralak: «Inteligentzian nahi beste diru inbertitu arren, hiri-ingurune batean borrokatzea izugarria eta nahasia da oraindik. Bortizkeria dela eta, gertaerak auresanezinak eta ausazkoak dira. Ezin da gidoi bat zehaztu borrokarako. Agintean dauden ofizialek ezin dute izan ikuspegi orokor bat. Ekintzarako erabakiak probabilitatean, kontingentzian eta egokieran oinarritu beharra dago, eta *in situ* eta denbora errealean baizik ezin dira hartu».⁹ Hain zuzen ere, armadari dagokionez, hiri-gerra gerraren azken molde postmoderno da. Hiri-ingurune anabasaren konplexutasun eta anbiguotasunaren aurrean, desagertu egiten da borroka logikoki egituratu eta bide bakarrekoearekiko konfiantza. Agintean dauden ofizialentzat oso zaila da gudu-egoerak prestatzea edo bide bakarrekoko planak diseinatzea; zibilak borrokalari bihurtzen dira, eta borrokalariak zibil; identitatea erraz alda daiteke, sexua ezkuta daitekeen bezain erraz: emakume bat gizonezko borrokalari bihurtu daiteke soldadu israeldar «arabiartu» batek edo borrokalari palestinar kamuflatu batek arropapetik arma bat ateratzeko behar duen denbora berean.

Times, 2003ko apirilak 3.

9 Shimon Naveh egun hauetan elkarrizketatu nuen: 2005eko irailaren 15ean (telefonoz); 2006ko martxoaren 7an (telefonoz); eta 2006ko apirilaren 11n eta maiatzaren 22an eta 23an (inteligentzia militarren base batean, Gilot-en, Tel Aviv-etik gertu). Elkarrizketaren transkripzioak eta ingeleserako itzulpen guztiak Navehri bidali nizkion, edukia egiaztatzeko. Besterik zehaztu ezean, Navehrekin izandako elkarrizketak aipatzen ditudan guztietan orain adierazitako horiez arituko naiz.



Israelgo Armadak 2002ko apirilean Nablusen aurkako erasoan egin zuen ibilbidea (Irudia: OTRI, 2004)

Hain zuzen ere, armadek beren praktikak eta antolamendu-moldeak egokitzeko egin dituzten saia-kerak aurkari dituzten gerrillen indarkeria-moldeetan oinarritu dira. Egokitu egiten direlako, imitatu egiten dutelako eta elkarrengandik ikasten dutelako, armada eta gerrilla «koeboluzio»-ziklo batean sartzen dira. Gaitasun militarrek beren aurkako erresistentziarekin batera garatzen dira, eta hori bera ere garatu egiten da praktika militarren eraldaketan aurrean. Halere, nahiz eta teknika militarren imitazioak eta berrapropiazioak esperientzia komun bat aditzera ematen duen, israeldarren eta palestinarren eraso-metodoak desberdinak dira funtsean. Erresistentzia palestinar zatikatua erakunde ugariz osatua dago, eta haietako bakoitzak sektore armatu gutxi-asko independente bat du: Ha-



masek, Iz Adin al-Qassam; Jihad Islamikoak, Saraya al-Quds (Jerusalemgo Brigadak); Al-Fatahk, Al-Aqsa-ko Martirien Brigada, Force-17 eta Tanzim al-Fatah. Horiek guztiek Herri Erresistentziako Batzordeak dituzte osagarri, eta Hezbola-ko edo Al-Qaeda-ko kide erreal edo alegiazkoak. Erakunde horiek kooperazioaren, lehia-
ren eta gatazka bortitzaren artean mugitzen dira, eta horrek areagotu egiten du haien arteko interakzioen konplexutasun orokorra eta, beraz, haien gaitasun kolektiboa, eraginkortasuna eta erresistentzia. Palestinako erresistentzia-taldeek izaera lausoa dute, eta, askotan, erakunde horiek partekatu egiten dituzte eza-
gutza, trebetasunak eta munizioak (batzuetan erasoak elkarrekin egiten dituzte, eta beste batzuetan elkarri gailentzeko lehiatzen dira); horrek guztiak nabarmen murrizten du Israelgo okupazio-indarrek haien kontra egindako erasoen eragina.

BAT

ERLAUNTZAK

Navehren arabera, Israelgo Armadak hiri-ingurunekeo operazioetarako sortu dituen teknika berrien kategoria nagusietako bat *erlauntza* da. Eta, hain zuzen ere, termino hori AEBko armadaren teoria militarren parte izan da zenbait hamarkadaz.

Teoria hori Gerra Hotzaren amaieran garatu zen, gai militarretarako iraultza [Revolution in Military Affairs, RMA] delako kontzeptuaren testuinguruan eta, bereziki, sareetan oinarritutako gerra [Network Centric Warfare] deritzon doktrinaren inguruan; azken horren arabera, operazio militarrek informazio-teknologiaren bidez lotutako sare-sistema banatuak dira.¹⁰ Erlaun-

10 Ez-linealtasunari eta sareei buruzko terminologiak Bigarren Mundu Gerraren ondorengo diskurtso militarren du jatorria, eta funtsezkoa izan zen AEBk 1982an Airlant Battle delako doktrina militarra diseinatzeko, zeinak azpimarratzen baitzuen indar armatuen adarren arteko elkarlana eta proposatzen baitzuen etsaiei beren botila-lepo sistematikoetan (zubiak, kuartel nagusiak eta hornikuntza-lerroak) erasotzeko, desoreka bila. Doktrina hori Erdialdeko Europaren aurkako sobietarren inbasio hipotetiko bati aurre egiteko sortu zen, eta 1991ko Golkoko Gerran erabili zen lehenengoz. Revolution in Military Affairs [RMA: Gai Militarren Iraultzaren] testuinguruan, korrante horren garapenak sarean oinarritutako doktrina ekarri zuen Gerra Hotza amaitu ondoren.



Hormetan zehar aurrera eginez (Israelgo Armadaren bideo-irudia, 2002)

tzaren teoriaren arabera, operazio militar bat unitate txikien zenbait multzo lausok eratutako sare bat da; unitate horiek independenteak dira hein batean, baina elkarren artean koordinatuta daude, eta gainerako guztiarekin elkarlanean jarduten dute.

David Ronfeldt eta John Arquilla RAND Korporazioko teorialariak dira, eta haiei egotzen zaie, zati handi batean, kontzeptu militar horren garapena. Haien aburuz, intentsitate txikiko gatazkei dagokienez, eta hirietan batez ere, uste nagusia da «sare bat behar dela sare bati aurre egiteko».¹¹ Egiaz, termino hori adimen artifizialaren arloko «erlauntzaren adimena» printzipiotik eratorria da. Printzipio horren arabera, arazoak konpontzeko ahalmena aurki daiteke kontrol

11 John Arquilla eta David Ronfeldt (ed.), *Networks and Netwars: The Future of Terror, Crime, and Militancy*, Santa Monica, Ca: RAND, 2001, 15; ikus baita David Ronfeldt, John Arquilla, Graham Fuller eta Melissa Fuller, *The Zapatista 'Social Netwar' in Mexico*, Santa Monica, Ca: RAND, 1998. Azken liburu horretan, autoreek azaltzen dute nola tribu nomadek erlauntzaren teknika erabili izan duten historian zehar eta nola orain gatazka soziopolitikoaren espektro osoko hainbat erakundek bere egin duten (terroristek eta gerrillek, gaizkile mafiosoek eta aktibista sozial ez-biolentoek).

zentralizatu bako (edo eskaseko) agente erlatiboki gutxi sofistikatuena (inurriak, txoriak, erleak, soldaduak) arteko interakzioan eta komunikazioan. Beraz, «erlauntzaren adimen»ak sistema baten adimen orokor eta konbinatuari egiten dio erreferentzia, ez haren osagai diren parte adimenari. Erlauntz batek «ikasi» egiten du bere osagaien arteko elkarrekintzatik, egoera berrietara egokitzeko duten moldeetatik eta ingurune aldakorren aurrean duten erreakziotik.¹²

Erlauntzak ez dira aginte-kate eta komunikazio lineal eta hierarkikoak, baizik eta sare polizentrikoak, eta «unitate autarkiko» (Naveharen hitzak erabilia) bakoitza besteekin komunika daiteke, ezinbestean aginte zentraletik igaro gabe. Militarren ustez, denborari dagokionez ere erlauntzaren maniobra ez da lineala. Operazio militar tradizionalak kronolinealak dira, eta haien helburua da «plan» baten arabera gertaeraregida bati jarraitzea; hau da, neurri batean, ekintza bakoitza aurreko ekintzaren gauzatze arrakastatsua baldintzatzen du. Aitzitik, erlauntza baten jardura elkarren mendekoak diren baina elkar baldintzatzen ez duten aldibereko ekintzetan oinarritzen da. Hortaz, gudu-planaren narratiba aldatu egiten da, eta Navehk «erreminta-kutxa»ren ikuspuntu deritzona gailentzen da; horren arabera, sortzen diren egoera eta eszenarioei aurre egiteko behar dituzten erremintak jasotzen dituzte unitateek, baina ezin dute auresan zer ordenatan jazoko diren gertaera horiek. Erabakiak hartzeko atalaseak berehalakotasun taktikoaren mailara jaitsiz eta gudu-zelaiko ekimena sustatuz, erlauntzaren parte

12 Eric Bonabeau, Marco Dorigo eta Guy Theraulaz, *Swarm Intelligence: From Natural to Artificial Systems*, Oxford: Oxford University Press, 1999; Sean J. A. Edwards, *Swarming on the Battlefield: Past, Present and Future*, Santa Monica, Ca: RAND, 2000; Arquilla eta Ronfeldt, *Networks and Netwars*.



Ezkerrean: Balatako iheslari-esparrua (Israelgo Armadaren argazkia, 2002).
Eskuinean: Nablus (Miki Kratsman, 2002)

desberdinek erantzun bat ematen diete ziurgabetasunezko, ustekabeko eta kontrolik gabeko gertaerei, zeinei *tirabira* baitzeritzen XIX. mendeko filosofo eta militar Carl von Clausewitz-ek.¹³

13 *Tirabira* hitzak ziurgabetasune, akatsei, istripuei, zailtasun teknikoei eta ustekabekoei egiten die erreferentzia, orobat horiek erabaketan, moralean eta ekintzetan dituden ondorioei. Ikus Peter Paret, 'Clausewitz', in *Peter Paret, Makers of Modern Strategy, From Machiavelli to the Nuclear Age*, Oxford: Oxford University Press, 1986, 197, 202. Clausewitz: «Tirabira izugarria, zeina ezin baita, mekanikan bezala, puntu gutxi batzuetara murriztu, nonahi dago zoriarekin harremanetan, eta ondorio neurtezinak eragiten ditu... Gerran, ekintza elementu erresistente baten mugimendua bezalakoa da... Ahalegin arrunten bidez, emaitza neurritsuak erdiestea ere zaila da». Ikus Carl von Clausewitz, *On War*, ed. eta itz. Michael Howard eta Peter Paret, Princeton, NJ: Princeton University Press, 1976 [1832], 119–21. Guduan agintea hedatzeko joera agerikoa zen jada Clausewitzen gerra napoleonikoei buruzko kontakizunean. Hauxe zen aginte napoleonikoaren oinarria: plan operatiborik onenak ere ezin ditu aurreikusi gerra batean gertatuko diren gorabeherak, eta komandanteak gudu-zelaian erabaki estrategikoak hartzera bultzatu behar dira. Oinarri hori printzipio nagusi bilakatu zen XIX. mendeko prusiar jeneral Moltke-rentzat bere *Auftragstaktik* edo «misiara bideratutako estrategiak» doktrinan. Moltkek ezinbesteko aginduak baino ez zituen ematen: «Agindu batek komandante batek egin ezin duen gutzia jaso behar du, horixe besterik ez». Ikus baita Hajo Holborn, 'The Prusso-German School: Moltke and the Rise of the General Staff', in Paret, *Makers of Modern Strategy*, 281–95, bereziki 291. Manuel de Landa-ren arabera, gudu-eremuko ekimena sustatzeari eta agintea hedatzeari esker, gudu dinamiko bat autoantolatatu egiten da neurri batean. «Maniobran oinarritutako gerra», zeina zenbait

Israelgo Armada osoak ahalegin handia egiten du «deslurraldetze»aren hizkuntza bereganatzeko eta berak iraganean antolaketaren eta taktikaren «linealtasun»tzat jotzen zuena «ez-linealtasun» bihurtzeko, eta, ahalegin horretan, erlauntzaren kontzeptua osagai garrantzitsua da. Alde horretatik, Ariel Sharon-en karrera militarra funtsezko erreferentzia historikoa izan zen OTRIk eskaintzen zituen ikasketetan. Sharon lehen ministroa izan zen, eta, beraz, «komandanteburua» Intifada ia osoan; baina, horrez gain, bere karrera militarrean zehar¹⁴ antolamendu eta diziplina militarretik ihes egiten saiatu zen behin eta berriro. Hain zuzen ere, berak 1953an 101 unitatearen komandante gisa herri palestinarren eta iheslari-esparruen aurkako zigor-erasoetarako garatu eta gauzatutako taktikak, geroago Gazako iheslari-esparruetan kontrainsurgentzia-kanpaina basatia ahalbidetu zutenak 1971n eta 1972an, israeldarrek gaur egungo Intifadari aurre egiteko erabiltzen dituzten taktiken aurrekariak izan ziren. OTRIk Sharonen karrera militarrekiko zuen interesaren adierazle argi bat institutu horrek 2006ko maiatzean antolatu zuen azken mintegia izan zen, «Ariel Sharonen agintea», zeinarekin nolabait omendu egin baitzuten Sharon hil hurrena eta hark Israelgo Armadan izan zuen eragina.¹⁵

teorialari militarrek garatu baitzuten bi mundu-gerren arteko tartean eta Wehrmacht-ek eta aliatuek erabili Bigarren Mundu Gerrako Europako guduetan, honelako printzipioetan oinarritzen da: autonomia handiagoa eta ekimena. Manuel de Landa, *War in the Age of Intelligent Machines*, New York: Zone Books, 1991, 71, 78–9.

14 14. oharra

15 «The Generalship of Ariel Sharon» izeneko mahai-ingurua OTRIn, Israelgo Armadaren Estatu Nagusirako eta Aginterako Akademiak antolatuta. 2006ko maiatzak 24-25.

BI

BALATAREN AURKAKO ERASOA

Israelgo segurtasun-arduradunentzat, iheslari-esparruak beti izan dira erresistentzia-hazkuntzaren gune nagusia eta haren ezinbesteko testuinguru hiritarra. Israelen iruditeria geografiko sinplifikatuaren arabera, iheslari-esparruak toki makur eta arriskutsuak dira, Israelgo Armada sartu ere egiten ez den «zulo beltza».¹⁶ Lehen Intifadan (1987-1991) eta bigarrean, Israelgo Armadak saihestu egin zuen Jeningo eta Bala-tako iheslari-esparruetan sartzea, eta, hala, bi esparru horiek Israelgo indar militarrez inguratutako lurraldez kanpoko barrendegi bilakatu ziren; hain zuzen ere, Jeningo esparruak, non erresistentzia-taldeak beste inon baino errotuago baitzeuden, «Germania» zuen ezizena. Hitz horrek agian Tazito-ren barbaroei buruzko deskribapen anibalenteari egiten dio erreferentzia,¹⁷ edo beharbada erregimen naziari; batera zein bestera, era-

16 Stephen Graham, «Constructing Urbicide by Bulldozer in the Occupied Territories», in Stephen Graham (ed.), *Cities, War and Terrorism*, Oxford: Blackwell, 2004, 332.

17 Tacitus, *The Agricola and The Germania*, Londres: Penguin Classics, 1971.

kusten du zer-nolako beldurra dion Israelek beraren ustez han barruan elikatzen den gaizkiari. Ariel Sharon 2001eko martxoan izendatu zuten lehen ministro, eta geroztik aldi oro egiten zien barre militarrei, ez zirelako ausartzen iheslari-esparruetan sartzen. «Zer gertatzen ari da Jeningo eta Balatako esparruetan? Zergatik ez zarete sartzen?». Sharonek behin eta berriro kontatzen zien armadako ofizialei nola berak 1970eko hamarkadan «arteztu» zituen Gazako iheslari-esparruak, aire-bonbardaketan, hilketan eta buldozerren bitartez.¹⁸

Israelgo Armadak Defentsa Murru opera-zioko erasoetan «hormetan zehar» aurrera egiteko erabili zuen metodoa haren taktikari buruzko eskuliburuan jasota zegoen jada eskala txikiko operazioetarako eta atxilotetarako, palestinarrek etxeko atea lehergailu-tranpez josia zutela uste zuten kasuetarako. Nolanahi ere, eskala handiko operazioetarako maniobra militar esanguratsu gisa 2002ko martxoan probatu zuten lehenengoz, paraxutisten brigadako Aviv Kochavik zuzendutako eraso batean, Nablusko ekialdeko sarrerako Balatako esparruaren aurka, Defentsa Murru hasi baino aste gutxi batzuk lehenago. Behar estrategikoei erantzunez erabili zen. Israel berehala egitekoa zen eraso bati aurrea hartuz, Palestinako zenbait erakunde armatutako ekintzaileek esparruaren sarrera guztiak itxi zituzten, petrolio-bidoiak porlanez betez, lubakiak eraikiz eta obra-hondakinezko barrikadak altxatuz. Kaleak lehergailu inprobisatuz eta gasolina-tankez minutu zituzten, eta inguruko eraikinetako sarrerak tranpez josi; orobat, zenbait egitura nabarmenetan, barruko eskailerak, ateburuak eta korridoreak. Borroka-talde independente batzuk, arma gutxi batzuez hornituak, es-

18 Raviv Druker eta Ofer Shelah, *Boomerang*, Jerusalem: Keter, 2005, 97 eta 218.

parru barruan kokatu ziren, errepide nagusietara begira zeuden etxeetan edo bidegurutze nagusietan.

Erasoa jo aurretiko argibideak emateko saio batean, Kochavik bere mendeko ofizialei azaldu zien zer-nolako arazoei aurre egin beharko zieten berehala gertatzekoa zen operazioan. Dirudienez, hauxe esan zien Kochavik bere ofizialei (Navehren hitzetan): «Palestinarrak borrokarako prest daude, eta espero dute guk, barrendegiari eraso egiten diogunean, haiek aurrez zehaztutako logikari jarraituz... molde zaharrek formazio mekanizatuarekin egingo dugula aurrera, lerro sarrietan eta trumilkako zutabeetan, kaleek osatzen duten sarearen ordena geometrikoa aintzat hartuz». Egoera hori bere ofizialekin aztertu eta eztabaidatu ondoren, Kochavik jarraibide hauek erantsi zituen borrokarako aginduetan: «Esparrua erabat bakartuko dugu egunsentian, pentsa dezaten horren ondoren setio-operazio sistematiko bat etorriko dela... [eta orduan] zatikako maniobra bat egingo dugu, eta trumilka agertuko gara barrendegiko toki guztietatik... Unitate bakoitzak maniobra orokorraren logika eta forma islatu behar du bere ekintza-moldeetan... Eraikinetan zehar mugituko gara, [matxinoak] kaleetara eta kalezuloetara bultzatuz, eta han harrapatuko ditugu».¹⁹ Orduan, tropa israeldarrek elektrizitatea, telefonoa eta ura moztu zituzten esparruan, frankotiratzailleak eta zaintza-postuak ezarri zituzten inguruko mendietan eta eraikin garaietan, eta gudu-zelaiko perimetro zabal bat inguratu zuten.²⁰ Soldaduak etorri ziren Nablus hi-

19 Hemen aipatua: Shimon Naveh, «Between the Striated and the Smooth: Urban Enclaves and Fractal Maneuvers», *Cabinet Magazine*, 2006ko uztaila, 81-88.

20 Gutxienez 80 palestinar hil zituzten Nablusen 2002ko martxoaren 29tik apirilaren 22ra bitartean. Lau soldadu israeldar hil zituzten. Ikus www.amnesty.org.

riari goitik begiratzten zioten Har Bracha eta Elon Moreh kokaguneetako elkarguneetatik, eta kolonoek gogotsu hartu eta besarkatu zituzten. Unitate txikitan banatuta, soldaduak esparruan sartu ziren aldi berean eta toki guztietatik, hormetan zehar zuloak eginez eta zibilen etxeetan zehar mugituz, ez haiek espero zituzten ibilbideetan aurrera eginez. Hala, esparrua berenganatzea lortu zuten, baina gerrillei atzera egiten utzi zieten.

Beharbada baten batek pentsatuko duenez hor-
mak zeharkatuz aitzinatzeko maniobra «kontu handiz»
egiten dela, komeni da Israelgo Armadaren prozedura
estrategikoak azaltzea. Soldaduak horma baten atzean
elkartzen dira; lehergailuak edo mailu handi bat era-
biliz, zulo bat egiten dute, haiek handik igarotzeko
bezain handia. Batzuetan, hormetan zeharreko era-
soen aurretik, granada zorabio-eragileak edo ausazko
tiroak jaurtitzen dituzte barrualdera; arrunki familia
baten etxeko egongela bat izaten da, eta han izaten
dira bizilagunak. Soldaduek horma zeharkatzen dute,
eta barruan daudenak elkartu; miatu egiten dituzte
«susmagarriak» bilatzeko, eta gela batean giltzapetu,
eta bizilagunek hor egon behar dute —batzuetan zen-
bait egunez— operazio militarra amaitu arte, askotan
urik, higienarik, janaririk edo botikarik gabe. Human
Rights Watch-en eta Israelgo giza eskubideen aldeko
B'Tselem erakundearen arabera, dozenaka zibil pales-
tinar hil dira era horretako erasoetan.²¹

Adania Shibli idazle palestinarra Balatako ihes-
lari-esparruan izan zen erasoen ondoren. Bisita haren
nondik norakoak azaldu zituen, baita han Salma andre
zaharrarekin izan zuen elkarrizketaren berri eman ere:

21 Amnesty International, *Shielded from Scrutiny: IDF Violations in Jenin and Nablus*, 2002ko azaroak 4; B'tselem, *Operation Defensive Shield: Soldiers' Testimonies, Palestinian Testimonies*, 2002ko iraila.

Soldaduek etxean egindako zuloak ikustera eraman gintuen. Lehenik paretak zulatu zituzten, eta jarraian etxeak su hartu zuen, haiek etxe barrura botatako esku-granada baten metrailak kable elektriko nagusia jota, eta ospa egin zuten handik, etxea erdi suntsitua eta sutan utzita. Soldaduak oldarka sartu zirenean, bera, seme-alabak eta bilobak etxea ebakutzera behartu zituzten, baina senarra han inguruan geratu zen, etxea jagoten. Erretzen ikusi zuenean, lasterka inguratu eta sugarrak itzaltzen saiatu zen, alferrik. Ito egin zen, eta konortea galdu, baina ez zen hil; halere, zerbait gertatu zitzaion garunean, denbora luzez ez zitzaiolako aski oxigeno iritsi, eta burua galdu zuen.²²

Gerra ustekabeen etxeko esparru pribatuan sartzeak trauma eta umiliazio gorria eragin die zibil palestinarrei, lehenago irakiarrei gertatu bezala. 2002ko azaroko erasoaren ondoren, Aisha izeneko emakume palestinar bat elkarrizketatu zuten *Palestine Monitoren*, eta hark honela azaldu zuen bere bizipena:

Kontu egin. Zure egongelan eserita zaude, ondo baino hobeto ezagutzen duzu. Gela horretan elkartzen da familia afalostean telebista ikusteko... Eta, halako batean, burrunba gorgarri bat entzuten da eta pareko horma desagertu egiten da, gela hautsez eta hondakinez betetzen da, eta horman zehar soldaduak sartzen dira erreskadan, aginduak oihukatuz. Ez dakizu zertara datozen: zure bila, etxea kentzera edo, besterik gabe, zure etxetik beste norabaitera igarotzera. Umeek oihu egiten dute izuak guztiz hartuta... Inola ere ezin irudikatu duzu zer-nolako beldurra sentitzen duen bost urteko ume batek lau, sei, zortzi, hamabi soldadu ikusten dituzenean aurpegia beltzez margoturik, metrailetak noranahi destatuz, antenak bizkar-zorrotik kirika mamorro estralurtar erraldoiak bailiran, etxeko hormak zartarazten eta haietan zehar aurrera egiten.

22 Adania Shibli, «Faint Hints of Tranquility», Anton Shamma (itz.), *Al-Adaab Magazine*, 2002ko maiatz-ekaina.

Orain liburuz estalita dagoen horma bat seinalatuz, erantsi zuen: «Eta hortik atera ziren. Horma leherrarazi, eta gure bizilagunen etxera joan ziren».²³

Soldadu israeldarrek Balatako iheslari-esparrua «okupatzeko» garaian agertutako gaitasuna ikusita, Israelgo Armadaren Aginte Nagusiak (Zisjordania haren ardurapean zegoen) erabaki zuen maniobra-molde bera erabiltzea Nablus hiriko alde zaharraren erdigunearen (kasbah) eta Jeningo iheslari-esparruaren aurkako erasoan, zeina 2002ko apirilaren 3an hasi zen.

Soldadu israeldar batek Jeningo borrokaren hasiera kontatu zidan: «Ez ginen behin ere eraikinetatik atera, eta etxeen artetik egiten genuen aurrera... Zenbait dozena bide ireki genituen esparruaren kanpoaldean hasi eta haren erdigunerantz... Guztiok —brigada osoa— palestinarren etxeen barruan geunden, gutako inor ez zegoen kaleetan... Nekez ausartzen ginen kanpora ateratzen... Gure kuartel nagusia eta lotarako kanpalekua eraikin horietan zeuden... Ibilgailuak ere etxeen barruan zabaldutako eremuetan uzten genituen».²⁴ Beste soldadu batek, geroago eraso hartan izandako bizipenei buruz liburu bat idatzi zuenak, zehatz-mehatz azaldu zuen hormetan zeharreko mugimendua: «Aireko argazki bat aztertu genuen, gu geunden etxea hegoaldekoarekin lotzen zuen horma bat aurkitzeko. Peter-ek mailua hartu zuen eta lanean hasi zen, baina ezinezkoa zen horma hura haustea. Lehenengo aldiz, porlan-blokez barik hormigoiz eraikitako horma baten aurrean geunden... Zuhurrera zen leherketa bidez eraistea. Zuloak soldaduak igarotzeko bezain handia izan behar zuen, eta gutxienez

23 Sune Segal, «What Lies Beneath: Excerpts from an Invasion», *Palestine Monitor*, 2002ko azaroa; www.palestinemonitor.org.

24 Eyal Weizmanen elkarrizketa Gil Fishbein-i, Tel Aviv, 2002ko irailak 4.

erispenerako lau karga [lehegailu] erabili behar izan genituen». ²⁵ Gerrillari palestinarrek ere hormetan zehar eta aurrez prestatutako zuloetan barrena maniobratzen ari zirenez, borrokaldi gehienak palestinarren etxeetan gertatu ziren. Eraikin batzuek zenbait geruzatako tarta baten itxura hartu zuten: palestinarrek pisu batean harrapaturik, goikoan eta behekoan soldadu israeldarrak zeudela. 2002ko apirilean israeldarrek Nablusen aurka egindako erasoaren su gurutzatuaren erdian harrapatutako palestinar batentzat, bazirudien israeldarrak «nonahi zeudela: atzean, alboetan, eskuinean eta ezkerrean... Nola borrokatu egoera horretan?». ²⁶

Israelgo Armadak Zisjordania eta Gaza gutziko 3Dko eredu digitalen ekoizpena bukatu berri du; eredu horiek etxe bakoitzaren xehetasunik txikienak jasozten dituzte, baita barruko ate eta leihoen kokapena ere. Nolanahi ere, 2002an, oraindik ere soldaduek aireko argazkiak erabiltzen zituzten, eta etxe bakoitzari lau digituko zenbaki bat esleitzen zitzaion, kokalekuen berri eman ahal izateko. Orientatzen laguntzeko, posizionatze globaleko sistema (GPS) erabiltzen zuten, eta komandanteei zegokien koordinazioa zentralizatzea, tripulatu gabeko droneekin hartutako argazkiak erabiliz. Leherketa bidez horma bat zulatzen zutenean, soldaduek oharrak espraiatzen zituzten hormetan baldarki —«sarrera», «irteera», «ez sartu», «honantz zoaz», «hemendik zatoz»—, soldaduen trafikoa arautzeko eta hiriaren parterik handiengan zizelkatutako labirintotik irten ahal izateko.

Nurhan Abujidi arkitekto palestinarrek ikerketa bat egin zuen Nablusen eta Balataren aurkako erasoan

25 Ofer Segal-Az K'ariel, *Fighting in Jenin 2002*, Tel Aviv: Ma'arachot Publications, Defentsa Ministerioa, 2006, 45 [hebreeraz].

26 Hemen aipatua: Henkin, «The Best Way Into Baghdad».

ondoren, eta agerian utzi zuen Nablusko kasbahko eraikinen erdiek indarrez zabaldutako bideak zeuzkatela alde alde, bat eta zortzi zulo bitartean etxe bakoitze-ko hormetan, zoruetan eta sabaietan, ausazko hainbat gurutzagune eratuz. Abujidi ohartu zen ibilbideek ez ziotela jarraitzen abantzamendu lineal soil bati; beraren ustez, noranzko argirik gabeko maniobra guztiz kaotiko bat ematen zuten aditzera.²⁷ Mugimendu guztiak ez ziren gertatzen hormetan zehar eta etxeen artean; eraikin ugari airetik bonbardatu zituzten eta erabat suntsitu, baita hiriaren alde zaharreko eraikin historikoak ere; haien artean, al-Wakalh al-Farroukkyeh-en XVIII. mendeko karabansaraia eta Nablusko eta Kanaan-go xaboi-lantegiak. Halaber, kalte larriak eragin zituzten Abdelhade jauregian, eliza ortodoxoan eta al-Naser meskitan.²⁸

Nablusko kasbah muturreko esperimentu bat egin zuten, jarduera militarra maniobra hutsetik harago eramanda. Israelgo Armadako ofizialak zapuztuta

27 Nurhan Abujidik ondorioztatu zuen indarrez irekitako bideak zituzten eraikinen %19,6k zulo bakarra zuela, %16,5ek bi, %10ek hiru, %4,1ek lau, %2,1ek bost eta %1ek zortzi. Ikus Nurhan Abujidi, 'Forced To Forget: Cultural Identity and Collective Memory/Urbicide. The Case of the Palestinian Territories, During Israeli Invasions to Nablus Historic Center 2002–2005', tailer honetan aurkeztutako artikulua: 'Urbicide: The Killing of Cities?', Durham University, 2005eko azaroa.

28 2003. urtearen hasieran Israelgo *Ma'ariv* egunkari ezagunerako egindako elkarrizketa batean, Kochavi bere kuartel nagusiko leihoetatik ikusten zen hiriaren edertasun biblikoari buruz gogoetatu zen: «Begira! Nablus Zisjordaniako hiririk politena da... Kasbah bereziki polita da; Jerusalemgo hiri zaharraren antza du, eta batzuetan hura baino politagoa ere bada». Tradizio koloniala da, eta israeldarra, baiki, ofizial militarrek kolonizatuen kulturarekiko jakin-nahia izatea; hala, bada, eraso jo aurretik, Kochavik Israelgo Armadaren Administrazio Zibileko Arkeologia Saileko buru Itzik Magen doktorearengana jo zuen, bere maniobra-planean zeuden zenbait eraikinen balio historikoari buruz galdezka. Hark «Ez suntsitu» zioen zerrenda bat helarazi zion (ez zuen beti bete), baina etxe «soilak» «xede legitimo»tzat onartu zituen. Amir Rapaport, 'City Without a Break', *Ma'ariv* egunkariko larunbateko gehigarria, 2003ko urtarrilak 10; Eyal Weizman eta Mira Asseo, Itzik Mageni eginiko elkarrizketa, 2002ko ekainak 21.

zebiltzan; izan ere, Palestinako hiriguneak —adibidez, Balata— azkar indarrez hartu eta okupatzeak zera eragin zuen, gerrillak ezkutatzea eta Israelgo Armadak atzera egin ondoren berriz agertzea. 2002ko martxoaren amaieran, gerra-kontseilu bat egin zuten Israelgo Aginte Nagusiaren kuartel nagusian, Defentsa Murru operazioa prestatzeko. Orduko hartan, Kochavik behin eta berriro esan zuen operazioa birbideratu egin behar zela eta xede nagusia Palestinako erakunde armatueta-ko albait kiderik gehienak hiltzea izan behar zuela, ez haiei ezkutatzeko aukera ematea, ezta errenditzekoa ere. Kochaviren asmoa jada ez zen kasbah hartu eta kontrolatzea, baizik eta han sartzea, palestinar erresistentziako ahal bezainbat kide hiltzea eta handik ospa egitea.²⁹ Hiltzea beste xederik ez zuten operazio militarrik bat zetozen maila politikoan ezarritako gidalerro argiekin. 2001eko maiatzean, kargua hartu eta bi hilabete eskasera, Sharonek beraren arrantxoan egingo zen presako bilera batera deitu zituen Shaul Mofaz kabineteburua, Avi Dichter eta haien bigarrengoak. Sharonek argi hitz egin zuen: «Palestinarrek... ordaindu egin behar dute egindakoa... Goizero, esnatu orduko, hamar edo hogeit hamar hil dizkietela jakin behar dute, eta zer gertatu den ulertu ez... Sormen handikoak izan behar duzue, eraginkorrak, sofistikuak».³⁰

Biharamunean, Mofazek gudu-zelaiko komandanteen bilera baten aurrean hitz egin zuen, 1967ko gerran Jerusalem hildakoak omentzeko monumentu batean (Munizioaren Muinoa). Inor grabatzen ari ez zitzaiola ziurtatu ondoren, Mofazek bere nahia adierazi zuen: «Eskualde-komando bakoitzak hamar palestinar hil behar ditu egunean». Geroago, ohi ez bezala hierar-

29 Amir Oren, 'The Big Fire Ahead', *Ha'aretz*, 2004ko martxoak 25.

30 Druker eta Shelah, *Boomerang*, 213.

kia militarra urratuz, gudu-zelaiko maila txikiagoko komandantei ere deitu zien mugikorrera banan-banan, eta hauxe esan zien: «Goizero-goizero, jaiki orduko, entzun nahi dut operazio batean parte hartu duzula eta hil egin dituzula...».³¹ Ausazko eta mendekuzko hilketez zamatutako giroa sumatzen zen airean. Mofazen aginduei jarraituz, «alferrikako hilketak» eta zibilen hilketak oso gutxitan ikertzen zituzten, eta zibilak hiltzen zituzten soldaduak ez zituzten ia inoiz zigortzen.³² Shimon Navehri egindako elkarrizketa batean, xede horien tolesgabetasun lazgarria egiaztatu nuen. Navehk azaldu zidan nola garai hartan «militarrak hasi ziren pentsatzen kriminalak bezala... serieko hiltzaileak bezala... Eremu bat esleitzen zitzaie, eta hura ikertzen zuten... Etsaiaren erakunde bateko pertsonak hiltzeko agintzen zaie, eta haiek aztertzen dituzte, haien itxura, haien ahotsa [telefono bidezko entzuketetan jaso], haien ohiturak... Hiltzaile profesoionalek bezala. Eremuan sartzen direnean, ondotoxo dakite non aurkituko dituzten, eta haiek hiltzen hasten dira».

Nablusen aurkako erasoan, Kochavik ez zien jaramonik egin palestinarrek errenditu nahirik egindako eskaerei; borrokan jarraitu zuen, eta jende gehiago hiltzen saiatu zen, Mofazek eraso amaitutzat eman

31 Bi aipuak hemengoak: *ibid.* 213-14, 220.

32 Gaur egun ia egunero gertatzen dira Zisjordanian arabiarrez mozorrotutako edo uniformeaz jantzitako soldadu israeldarrek egindako hilketak-operazioak. Eraso horietako hilketetarako oinarri juridiko ohikoena da biktimak «indarra erabili duela atxilotua ez izateko» (aukera hori existitu ere ez da egiten hilketak airetik eta urruneko sistemen bidez egiten direnean). B'Tselem erakundeak argitaratutako datuen arabera, 2004. urtearen hasieratik 2006ko maiatzera arteko epe laburrean Israelgo segurtasun-indarrek 157 pertsona hil zituzten «atxiloteta-operazio» deituriko erasoetan. Ikus 'Take No Prisoners: The Fatal Shooting of Palestinians by Israeli Security Forces during "Arrest Operations"', B'Tselem, 2005eko maiatza. www.btselem.org; Al-Haq (giza eskubideen erakunde palestinarra), 'Indiscriminate and Excessive Use of Force: Four Palestinians Killed During Arrest Raid', 2006ko maiatzak 24, www.alhaq.org.

zuen arte. Jenin suntsitu ondorengo presio politiko eta nazioartekoaren ondorioz eten zuten kanpaina modu hartan, une batetik bestera. Geroago, Gal Hirsch-ek —OTRIko beste graduatu bat, Aginte Nagusiko operazioburua guduak iraun bitartean— honako hau esango zuen harroki: «24 orduan [palestinarek] 80 gizon armatu baino gehiago galdu dituzte, eta antzik ere ez diote hartu gure kokapenari».³³ Erasoaren ondoren, Ben Eliezer Defentsa ministroak Kochavi zoriondu zuen, mugikorrera deituta: «Ondo egina», berriz ere, Sharonen izenean.³⁴ Geroago, Kochavik esan zuen buruzagi politikoek borrokan jarraitzen utzi izan baliote bere soldaduek ehunka palestinar hil izango zituzketela. Nablusen aurkako eraso arrakastatzat jo zuten: alde batetik, hildako palestinaren kopuruagatik, eta, bestetik, Israelgo militarrei eta palestinareiri erakutsi zitelako Israelgo Armada nahierara sar zitekeela palestinaren iheslari-esparruetan eta hiriguneetan. Aurrerantzean ere, Kochaviren soldaduek hori erakusten jarraitu zuten, eta beste zortzi aldiz sartu ziren Nablusko eta Balatako esparruetan teknika bera erabilita. Kochavik Israelgo segurtasun-jomugak zehaztu zituen, eta sutsuki jo zuen haien kontra; besteak beste, horregatik eskatzen dute nazioartean Kochavi gerra-krimenen auzitegi batean epaitzeko.³⁵

33 Hemen aipatua: Sergio Catignani, «The Strategic Impasse in Low-Intensity-Conflicts: The Gap Between Israeli Counter-Insurgency Strategy and Tactics During the Al-Aqsa Intifada», *Journal of Strategic Studies*, 28, 2005, 65.

34 Druker eta Shelah, *Boomerang*, 218.

35 Avi Kochavik 2006ko otsailen erakarri zuen komunikabideen arreta, Israelgo Armadaren aholkulari juridiko nagusiak gomendatu zionean ez egiteko Erresuma Batuko akademia militar batera planifikatuta zuen bidaia, Britainia Handian gerra-krimenengatik auzipetu zezaketelako; Kochavi gerra-krimenekin lotzen duten lehenagoko adierazpenak ezagutzeko, ikus Neve Gordon, 'Aviv Kochavi, How Did You Become a War Criminal?', www.counterpunch.org/nevegordon1.html.

HIRU

ALDERANTZIZKO HIRI-GEOMETRIA

Karrerako beste hainbat ofizialek bezala, Kochavik eszedentzia hartu zuen zerbitzu aktiboan, unibertsitate-titulu bat ateratzeko. Hasiera batean, arkitektura ikastekotan izan zen, baina, azkenean, filosofia egin zuen Unibertsitate Hebrearrean; zioenez, bere jardun militarrean eragin handia izan zuten bi diziplinek. Ofizial militar gisa, OTRIko eskolak ere hartu zituen.³⁶ Elkarrizketa batean, Kochavik erasoak deskribatu zizkidan, eta hark emandako azalpena teoria eta praktika militarren arteko harremanari buruzko adierazpen bitxi eta harrigarria da:

Ikusten duzun espazio hau, ikusten duzun gela hau [elkarrizketa egin genuen gela adierazi nahi zuen, Tel Aviv ondoko base militar batekoa], zure interpretazioa baino ez da. Halere, zure interpretazioaren ertzak heda ditzakezu, baina ez mugagabeki; azken finean, fisikak mugatzen ditu, eraikinak eta hiribideak daudelako. Kontua zera da: nola interpretatzen dituzu zuk kaleak? Zuretzat ere, arkitekto eta hirigile guztientzat bezala, kale bat hortik barrena ibiltzeko leku bat da, edo


36 Chen Kotes-Bar, 'Bekichuvo' [Starring Him], *Ma'ariv*, 2005eko apirila [hebreeraz].



Nablusen aurkako erasoa, 2002ko apirila; izarrek hildako palestinarrak adierazten dituzte (Irudia: OTRI, 2004)

zeharkatzea debekatua dagoen leku bat? Hori interpretazioaren baitakoa besterik ez da. Gure interpretazioaren arabera, debekatuta dago kaleetan zehar ibiltzea, eta debekatuta dago ateetan zehar igarotzea, eta debekatuta dago leihoetan zehar begiratzea, zeren eta arma bat daukagu zain kaleetan, eta lehergailu-tranpa bat daukagu zain ate ostean. Zergatik? Etsaiak modu tradizional eta klasikoan interpretatzen duela-ko espazioa, eta nik ez diot interpretazio horri jaramon egin nahi, ez dut etsaiaren tranpetan erori nahi. Eta ez hori bakarririk: etsaia ustekabeen harrapatu nahi dut. Hori da gerraren funtsa. Irabazi egin behar dut. Ustekabeen agertu behar dut. Eta horretan saiatu ginen.

Horregatik erabaki genuen hormetan zehar aurrera egitea... Zizareak hozkaka aurrera egiten duen gisa berean, han-hemenka agertuz eta berriro ezkutatuz. Hartan, bada, [palestinarren] etxe barrutik kanpoalderantz mugitzen ari ginen, haiek espero ez zuten moduetan eta espero ez gintuzten tokietatik, eta atzetik agertu eta kantoiairen bestaldean zain genuen etsaia kolpatzen genuen... Metodo hura [eskala



hartan] erabiltzen genuen lehen aldia zenez, operazioan zehar ere ikasten ari ginen nola egokitu espazio hiritar esanguratsura eta, halaber, nola egokitu espazio hiritar esanguratsua gure beharretara... Mikrotaktikan oinarritutako praktika hori [hormetan zehar aurrera egitea] hartu eta metodo bihurtu genuen, eta, metodo horri esker, espazio osoa beste modu batean interpretatzeko gai izan ginen... Nire soldaduei esan nien: «Lagunok, ezin hautatu duzue! Ez dago mugitzeko beste modurik! Orain arte, errepideetan eta espaloietan zehar mugitzen zineten... Ahaztu hori! Aurrerantzean, hormetan zehar egingo dugu aurrera!».³⁷

Ekintzaren deskribapenaz gain, Kochavik elkar-irizketa horretan darabilen hizkera ere interesgarria da oso. Haren esanetan, hiri-gerran arrakasta izateko ezinbestekoa da espazioa interpretatzea —eta are

37 Eyal Weizman eta Nadav Harel-en elkarrizketa Aviv Kochaviri, 2004ko irailak 24, Tel Aviv ondoko base militar israeldar batean [hebreeraz]; bideo-dokumentazioa: Nadav Harel eta Zohar Kaniel.

berrinterpretatzea—, eta horrek agerian uzten du hizkera teoriko postmoderno eta postestrukturalistaren eragina. Gerra, Kochaviren hizkuntza sofistikatu eta aseptikoaren arabera, hiri-ingurunea interpretatzean eta hura (kontzeptualki) deseraikitzean datza, baita operazioari ekin aurretik ere.

Kochaviren «arrakasta»ri dagokionez, Navehk honela zioen: «Nablusen, Israelgo Armada hasi zen hiri-borroka problema espazial gisa ikusten». OTRIk taktika horietan izan duen eraginari buruz, berriz, honako hau zioen: «Goi-mailako zenbait ofizial prestatu genituen, eta, hala, galdera asko egiten zituzten agente subertsiboz bete genuen sistema... Goiko zenbait agintari ez dira lotsatzen Deleuze ahotan hartzeaz, edo [Bernard] Tschumi [arkitekto dekonstruktiboa]». Galdetu nion: «Zergatik Tschumi!?» (izan ere, arkitekturaren historiari buruzko liburuetan, Tschumik ohorezko leku berezia du ezkerreko arkitekto «erradikal»en artean). Eta erantzun zidan: «Tschumik *Architecture and Disjunction* [Arkitektura eta disjuntzioa]³⁸ liburuan adierazten duen disjuntzioaren irudikapena egokia gertatu zitzaigun guri... Beste ikuspuntu batetik heltzen zion epistemologiari; ikuspegi bakarreko ezagutzarekin eta pentsamendu zentralizatuarekin hautsi nahi zuen. Askotariko praktika sozialetatik begiratzen zion munduari, etengabe aldatzen ari den ikuspuntu batetik...». Orduan galdetu nion ea hori hala izanik zergatik ez zituen irakurtzen Derrida-ren testuak eta dekonstruktioari buruzkoak. Eta erantzun zidan: «Derrida ilunegia izan daiteke gure jendearentzat. Arkitektoekin hobeto moldatzen

38 Bernard Tschumi, *Architecture and Disjunction*, Cambridge, MA.: MIT Press, 1997. Navehk Tschumiren liburuko kapitulu batzuen hebreerazko itzulpena osatu berri du.

gara; teoria eta praktika uztartzen ditugu. Badakigu irakurtzen, baina orobat dakigu eraikitzen eta suntsitzen eta, batzuetan, hiltzen».

2004ko hitzaldi batean, Navehk diagrama bat aurkeztu zuen, «judizioen aurkakotasunaren karratu» baten itxurakoa, zeinetan erakusten baitzen harreman logikoen multzo bat, operazio militarrekin eta gerrillakoekin lotutako proposamen jakin batzuen aurrez aurre. Zenbait idazpurutan, nabarmentzen zen Gilles Deleuze eta Félix Guattari filosofo frantsesen hizkuntza: *Diferentzia eta errepikapena, Egituraketaren eta egituraren arteko dialektika, Entitate aurkari 'formagabeak', Maniobra fraktala, Abiadura vs erritmoak, Wahhabi gerra-makina, Anarkista postmodernoak, Terrorista nomadak* eta abar.³⁹ Deleuze eta Guattariren itzal hori Israelgo Armadan berriki egindako eraldaketen adierazgarri da; izan ere, bi autore horiek gerrari buruzko ikerketa-lanen eragina zuten, baina batez ere Estatuak kontrolatzen ez dituen indarkeria- eta erresistentzia-moldeak interesatzen zitzaizkien, zeinen etsairik porrokatuenak baitira Estatuak eta haren armada. Elkarrekin idatzitako liburuan, *A Thousand Plateaus*, Deleuzek eta Guattarik bi lurraldetasun-mota bereizten dituzte: bata, estatu-sistema hierarkiko, kartesiar, geometriko, solido, hegemoniko eta espazialki zurruna; bestea, espazio nomada malgu, aldakor, leun eta matrize lakoa.⁴⁰ Es-

39 Terminologia hori batez ere Gilles Deleuze eta Félix Guattarirena da, *A Thousand Plateaus, Capitalism and Schizophrenia*, Brian Masumi (itz.), New York eta Londres: Continuum, 2004, eta Gilles Deleuze, *Difference and Repetition*, New York: Columbia University Press, 1995, beste lan batzuen artean.

40 «Espazio sedentarioa hormek, esparruek eta esparruen arteko errepideek ildaskatzen dute; espazio nomada, berriz, leuna da, eta ibilian ezabatzen eta lekualdatzen diren "ezaugarri"ek soilik orbatzen dute». Gilles Deleuze eta Félix Guattari, *A Thousand Plateaus*, 420.

pazio nomada horien barruan, Deleuzek eta Guattarik organizazio sozialak aurreikusi zituzten, forma askotako sare operatibo lausoz osatuak. Sare horien artean, errizomak eta gerra-makinak talde txiki ugaz osatutako antolamenduak dira, kontingentziaren eta egoeraren arabera bereizi edo elkartu daitezkeenak; talde horien ezaugarrietako bat da egokitze eta itxuraldatzeko gaitasuna. Antolamendu-molde horiek, berez, lehen deskribatu ditugun ideal militarak islatzen dituzte.

Navehk honela zioen:

A thousand plateaus liburuko zenbait kontzeptu funtsezkoak bilakatu ziren guretzat [Israelgo Armadan]... Gaur egungo egoerak azaltzeko aukera eman ziguten, bestela azaldu ezin izango genukeen moduan. Gure paradigmak problematizatu zituzten... Garrantzitsuena zera zen, «leun» eta «ildaskatu» kontzeptuen artean [Deleuzek eta Guattarik] egin zuten bereizketa... [zeinak islatzen baitzituen] «gerra-makina» ren eta «estatu-aparatu» aren antolamenduzko kontzeptuak. Orain, Israelgo Armadan askotan erabiltzen dugu «espazio leun» terminoa, adierazi nahi dugunean operazioa egiten dela espazio batean zeinaren mugek ez baitigute eragiten. Eremu palestinarrak, oster, «ildaskatu» tzat jo daitezke, hesiek, hormek, lubakiek, barrikadak eta bestek mugatzen dituztelako... Jardun militar tradizional eta zaharkituko [horrela funtzionatzen dute gaur egun unitate militar gehienek] espazio «ildaskatu» ari leuntasunez aurre egin nahi diogu, horrek muga eta hesi guztiak zeharkatzen dituen espazioan zehar mugitzeko aukera ematen digulako. Gure helburua ez da gure indarra gaur egungo mugen arabera kontrolatu eta antolatzea, baizik eta haietan zehar mugitzea.

Errizomari buruz, ikus Introduction, 3–28; gerra-makinari buruz, ikus 387–467; leunari eta ildaskatuari buruz, ikus 523–51. Deleuzek eta Guattarik bazekiten estatuak edo haien agenteak ere gerra-makina bihur zitezkeela, eta, era berean, “espazio leun”aren ikuspuntuak menperatze-tresnak sortzen lagundu zezakeela.

Navehri galdetu nion ea hormak zeharkatzea ere horren parte zen, eta haxe erantzun zidan: «Horretan zehar aitzinatzea teoria eta praktika lotzen dituen irtenbide mekaniko sinple bat da. Mugak urratzea “leuntasun”aren definizioa da».

LAU

SUNTSIPEN BIDEZKO DISEINUA

Balataren eta Nablusen aurkako erasoen «leuntasun» hori Israelgo Armadak Jeninen eragindako arazo, «ildaskatze» eta suntsipen fisikoarekin alderatu behar da ezinbestean. Jeningo iheslari-esparrua hiriaren mendebaldeko mendi-hegalean kokatuta dago, Zisjordaniaren iparraldean, Lerro Berdetik hurre. Israelgo hiri eta herrietatik gertu dagoenez, Israelgo zibilen eta armadaren aurkako eraso ugari handixe abiatzen ziren; horregatik, bai Gobernuak bai Israelgo herritarrek estu hartzen zuten armada, Jeningo esparruari eraso ziezaion. Palestinarrak Israelgo Armada berehala abiatzekoa zen erasoaldi bati aurre egiteko prestalanetan zebiltzala, esparruaren defentsaz arduratzen zen komandanteak —Hazam Kubha «Abu-Jandel» polizia ohia— hamabost eremutan banatu zuen esparrua, eta horietako bakoitza zenbait dozena defendatzailearen esku utzi, haien artean polizia palestinarrak, zeinek instant batean ehunka lehergailu prestatu baitzituzten ongariak erabiliz.⁴¹ Jeningo iheslari-esparruaren

41 Amos Harel eta Avi Isacharoff, *The Seventh War*, Tel Aviv: Miskal – Yedioth



Jeningo iheslari-esparruan zehar zulatutako bide berriak (Palestinako herritarrek egindako bideo batetik ateratako irudiak; 2002ko apirila)

aurkako erasoia Nablusen kontrakoarekin batera hasi zen, 2002ko apirilaren 3an, eta soldadu israeldarrek antzeko metodoak erabili zituzten bietan. Bulldozer militarrek esparruaren ertzetaraino gerturatu ziren, eta zuloak egin zituzten periferiako etxebizitzetako kanpo-hormetan. Gero, ibilgailu blindatuak barnerratu ziren atzera-martxan etxe horietan, eta, hormetan irekitako zuloetan zehar, soldaduak palestinarren etxeetan sartu ziren zuzenean, frankotiratzailleak saihestuz. Handik, soldaduak etxez etxe aurrera egiten saiatu ziren, mehelinetan zehar. Borroka etxeetan eta etheen artean gertatzen ziren bitartean, borrokalari palestinarrak, behe-solairuetako tuneletan eta isilpeko lotuneetan zehar mugituz eta Israelen helikopteroen sutik gordez, esparrura sartzeko ahaleginean zebilen dibisio bat geldiaraztea lortu zuten. Erasoaldi horretan, abangoardiako soldadu israeldar gehienak erreserbako tropetakoak ziren, ausaz hautatuak, eta Balatari eta Nablusi eraso zietenek baino eskarmentu militar txikiagoa zuten. Gudaren anabasan, zibilak eta borro-

Aharonoth Books eta Chemed Books, 2004, 254–255.

kalariak nahasian zebiltzan, eta borrokak eguneroko bizitzaren hondakinetan eta haien artean gertatzen ziren.⁴² Gatazka, hein handi batean, ez zen munta handiko erasoaldietan oinarritzen, baizik eta hildakoak eragiten zituzten eskala txikiko borroka gupidagabeetan, eraikinen eta hondakinen arteko segadetan. Frankotiratzaille palestinarrek eraikinen barru-barrutik tiratzen ikasi zuten, hormetatik metro gutxi batzuetara kokatuz eta berek haietan egindako zuloetan zehar tiratuz; are gehiago, batzuetan ondoz ondoko zenbait hormatan egindako zuloetan zehar egiten zuten tiro.

Israelgo Armadak ez zuen lortu esparruko defentsa berehalakoan eraistea, eta orduantxe hasi zen Jeningo erdigunearen suntsipen erabatekoa. Apirilaren 9an, eraso hasi baino astebete inguru lehenago, eta Israelgo Armada ezer gutxi aitzinatzen ari zela, militante palestinarrek beren erasorik arrakastatsuen egin zuten: eraikin-ilara bat zartarazi zuten, eta Israelgo Armadaren patruila baten gainean erorarazi, esparruaren erdi-erdiko Hawashin barrutian; hamahiru soldadu hil zituzten. Israelgo Armadako ofizialek ez zuten hartu nahi soldadu gehiago galtzeko arriskua, eta ez zuten ikusten erresistentzia beste ezein modutan menderatzeko biderik; halandaze, esparrua suntsitzen hasteko agindu zieten Caterpillar D9 motako zenbait bulldozer blindatu izugarri. Borrokalariak eta han geratzen ziren zibilak hondakinen artean lurperatu zituzten. Bulldozerren gidarietako batek honela kontatu zuen han bizitakoa: «Hiru egunez, suntsitu eta suntsitu jardun nuen, ez nuen besterik egin. Eremu guztia suntsitu nuen. Etxe batetik tiro egiten bazuten, birrindu egiten nuen. Eta, hura eraisteko, beste zenbait ere botatzen nituen... Azkenerako, “Teddy”ren [Jerusalemgo

42 Gil Fishbein-i egindako elkarrizketa.



Ezkerrean: eraikuntza-lanak Jeningo iheslari-esparruan). Eskuinean: UNRWako ingeniari Ahmad A'bizari. (Bideo-irudiak: Nadav Harel, Anselm Franke eta Eyal Weizman, 2004)

futbol-estadioa, hiriko Teddy Kollek alkatearen omenez hala izendatua] adinako eremu zabala suntsitu nuen».⁴³ Batzuetan, bulldozerrek lurra eta hondakinak pilatzen zituzten eraikinen gainean edo haien artean, eta, hala, eremuak bakartu eta guda-zelaiaren topografia aldatzen zuten. Esparruaren erdigunea erori zenean, hauts-laino trinko bat kaleak eta hiribideak hartzen hasi zen, eta hantxe geratu zen borrokaren gainerako egunetan ere. Azkenean ere hautsa aienatu zenean, orduantxe ohartu ziren nazioarteko erakunde eta komunikabideak Israelgo Armadak eragindako suntsipenaren zenbaterainokoaz. Berrogeita hamabi palestinar hil zituzten, erdia baino gehiago zibilak. Batzuek, tartean adinekoak eta elbarriak, ezin izan zuten garaiz ihes egin, eta bizirik lurperatu zituzten beren etxeen hondakin azpian.

Guduaren ondoren ateratako aireko argazkien behaketak agerian utzi zuenez, 40.000 metro karratu-

43 Tsadok Yeheskeli, 'I Made Them a Stadium in the Middle of the Camp' 'Yedioth Aharonoth', 2002ko maiatzak 31, hemen ere kontsultatu daiteke: http://gush-shalom.org/archives/kurdi_eng.html.

ko eremu batean kokatutako 400 eraikin plangintza militarren logikari jarraituz suntsitu zituzten.⁴⁴ Hondamen hori ulertu behar da ez soilik guduaren kontingentziari emandako erantzun gisa, baizik eta baita esparruaren hirigintza-plan guztiz bestelako baten sorrera gisa. Guduak iraun zuen bitartean, Israelgo Armadak zabaldu egin zituen orduko etxarte estuak, eta berriak egin zituen erakinak zeharkatuz, tankeak eta bulldozer blindatuak esparruen barren-barrenera sartu ahal izateko. Esparruaren muinean espazio zabal bat soildu zuten, eta bide berriek gunehorretan bat egiten zuten. Toki horretan, Hawashin barrutian, bilduzen azken erresistentzia, eta palestinarrek «zero eremua» izendatu zuten gerora. Errepide berri eta zabal horiekin, militar israeldarrak erraz sartu ahalko ziren berriro esparrura, eta aurrerantzean jada ez zen izango ezin zulatuzko barrendegi bat, ezta «erresistentziaren babeslekua» ere.

NBEren babesarekin, ia berehala ekin zieten esparrua berreraikitze lanei. Nolanahi ere, berreraikuntzarako planek zenbait eztabaida piztu zituzten esparruko ordezkari palestinarren eta NBEko ingeniarien artean, diseinuaren, logika militarren eta suntsipenaren arteko harreman zuzenari zegokionez.⁴⁵

Arabiar Emirerri Batuko (AEB) Gurutze Gorriak 29 milioi dolar eman zituen, eta diru hori bi zereginetarako erabili zen: batetik, UNRWak plan zuzentzaile bat

44 Hirurehun eta berrogeita hamar eraikin suntsitu zituzten, gehienak etxebizitzak; beste 1.500ek kalteak jasan zituzten, eta 4.000 pertsona inguru etxetik gabe geratu ziren. Hogeita hiru soldadu israeldar hil ziren. Amnesty International, *Shielded from Scrutiny: IDF Violations in Jenin and Nablus*, 2002ko azaroak 4 eta Stephen Graham, 'Constructing Urbicide by Bulldozer'

45 Informazio hau, neurri handi batean, 2004ko abuztuan esparrua berreraikitzen ari ziren bitartean Nadav Harel-ek, Anselm Franke-k eta hirurok egindako ikerketa filmatuan oinarritzen da.



Eraikuntza-lanak Jeningo iheslari-esparruan (Bideo-irudiak: Nadav Harel, Anselm Franke eta Eyal Weizman, 2004)

ezartzeko esparrua birdiseinatzeko; bestetik, suntsitutako etxe gehienak berriekin ordezkatzeko. Proiektu hura AEBko presidente Sheikh Zayed Bin Sultan Al Nahyan zenaren omenez egingo zen. Berreraikuntza-planak jakinarazi eta berehala, errepideen diseinuari buruzko gai arantzatsu bat azaleratu zen. Proiektuan jasotako kale eta azpiegiturez UNRWako ingeniari bat arduratu zen, Ahmad A'bizari, eta hark, «suntsipena aprobetxatuz, errepideak 4-6 metro zabaldu» nahi izan zituen.⁴⁶ Haren ustez, errepideen zabalera berri hori mesedegarria izango zen esparruarentzat; baina, jakina: Israelgo tankeak itzuliz gero, erraz izango zuten aurrera egitea, etxeetako hormen kontra jo barik eta eraikinen artean trabatuta geratu gabe. Halere, errepideak zabaltzeak ekarriko luke errepideen alboetako jabetza pribatuko jatorrizko lurren % 10-15 inguru lur publiko gisa erregistratzea. Kasu batzuetan, UNRWaren planak jasotzen zuen errepideak modu honetan

46 Nadav Harel, Eyal Weizman eta Anselm Franke, elkarrizketa filmatua, Jenin, 2004ko abuztua.

zabaltzea: eraikinen behe-solairuko aurreko pareta metro bat inguru atzeratuz, haien orubearen mugaraino; hala, goiko solairu batzuk esekita geratuko ziren, balkoien antzera. Behe-solairuei zegokien espazio pribatuaren galeraren truke, solairu gehiago eraikiko lirateke besteen gainean, eta esparrua, oro har, inguruko nekazaritza-lurretara zabalduko litzateke, zeinak UNRWAK erosiak baitzituen.

Nahiz eta argudiatu zuten UNRWAKen proposamena esparruko zirkulazioa kudeatzeko hobekuntza bat besterik ez zela, esparruko herri-batzordeak,⁴⁷ zeinetan erakunde armatuek erabateko eragina baitzuten, adierazi zuen errepideak zabalduz gero Israelen tankeak errazago eta nahieran sartu ahalko zirela esparruan. Batzordekide batek behin eta berriro errepikatu zuen kontu bera: «Zaildu egin behar diegu Israelgo tankeei esparrura sartzeko bidea, ez erraztu».⁴⁸ Eztabaidari amaiera emateko, UNRWAK esparruko arazoetan zuen subiranotasuna baliatu zuen, eta errepide zabalagoak eraikitzeke asmoarekin aurrera egin, bizilagunen protestak gorabehera. Geroago, Berthold Willenbacher UNRWAKo bigarren proiektu-zuzendariak damuzko adierazpenak egin zituen: «Israelgo tankeak sartzeko bide bat diseinatu genuen, eta ez genuen halakorik egin behar, orain herritar armatuek hiribide estuekin baino aukera gutxiago baitute ihes egiteko. Ez genuen aintzat hartu haien ikuspuntua».⁴⁹

47 Herri-batzordea lehen Intifadan sortutako ordezkariak politikoa da. Herri okupatuetan, iheslari-esparruetan eta okupaziopeko hirietan garatu zen demokrazia parte-hartzailean oinarritzen da. Leku gehienetan, PAEren fakzio nagusietako alderdi politikoei, baita Hamasek eta Jihad Islamikoak ere, ordezkariak izendatu zituzten.

48 Gideon Levy, 'Tank lanes built between new Jenin homes', Ha'aretz, 2004ko maiatzak 10.

49 «Hala jokatzeko aurpegiatu ziguten, baina errepideak zabaldu genituen autoentzat eta anbulantzientzat; zentzugabea litzateke hala ez egitea.

Handik sei hilabetera, 2002ko azaroan, Israelgo tankeak berriro ere esparruan sartu zirelarik, gertaera tragiko batek agerian utzi zuen zer arrisku zekartzan tankeak esparruan sartzeko bidea errazteak: haietako batek UNRWArean proiektu-zuzendari nagusia, Iain John Hook britainiarra, tirokatu eta hil zuen. Soldaduak esan zuenez, palestinar batekin nahastu zuen, eta haren telefonoa, granada batekin.

Etenik gabeko gatazka batean, UNRWAK bere gain hartu zuen herritarren ongizatearen eta arkitekturaren mantentze-lanen ardura, eta, testuinguru horretan, hirigintza-plana «paradoxa humanitario»aren kasurik agerikoenetako bat izatera iritsi zen; alegia, laguntza humanitarioak indar zapaltzailearen zerbitzuan amaitu dezake. Are gehiago, etxe berriak esparruan inoiz ikusi gabeko estandar baten arabera eraiki ziren, eta, lehen-dabizikoz, UNRWAK aukera izan zuen Israelgo Armadak suntsitutako ur- eta estolda-sare desegokiak aldatzeko.⁵⁰ Hori guztia kontuan hartu behar da Jeningo esparruko herri-batzordeko kide baten esanak ulertzeko; NBEk krema-koloreko eta behin betiko itxurako etxeak eraiki berri zituen, eta, haren ustez, horrek esparruaren izaera behin-behinekoa hausten zuen. Horren harira, berba hauek esan zituen: «Itzultzeko eskubidea galdu dugu».⁵¹

Bizitzeko eremu normal bat eraiki nahi genuen... Guk alderdi teknikoari begirutzen diogu, ez gerrari; israeldarrak berdin-berdin sartuko dira». Ikus Justin McGuirk, 'Jenin', Icon Magazine, 24. zk., 2005eko ekaina, http://www.icon-magazine.co.uk/issues/024/jenin_text.htm. Halere, herri-batzordeko kideek uste zuten UNRWAK nahita hartu zuela errepideak zabaltzeko erabakia, etxebizitza berriak babesteko, eta erabaki hura aseguru-poliza batek ezarritako baldintzekin lotuta zegoela.

50 Are gehiago, esparruko ehun familia inguruk Saddam Husseinen dirulaguntza lortu zuten, hura boteretik kendu baino hilabete batzuk lehenago: etxea galdu zuen familia bakoitzak 25.000 dolar jaso zituen, eta, kasu gehienetan, etxe-barruak berritzeko eta altzariak eta sare elektrikoak jartzeko erabili zuten. Levy, 'Tank Lanes', Harel, Weizman eta Franke, elkarrizketa filmatuak.

51 Hemen aipatua: Levy, 'Tank Lanes'. Iheslari guztiek ez zuten berdin



pentsatzen, batzuk poz-pozik baitzeuden beren etxe berriekin.



Hiri-gerrarako entrenatzeko gunea; Chicago izena du, eta Tze'elim basean dago, Negev basamortuan. Barneko bistan, zulo aurrez eginak ikusten dira hormetan (Adam Broomberg eta Oliver Chanarin, 2005). 1980ko hamarkadaz geroztik, Chicagoren historiak Ekialde Ertaineko historia militarren zati handi bat markatu du, eta, hari begiratuta, agerikoa da nola aldatu den Israelgo Armadarentzat segurtasuna ulertzeko moldea eta hiriekiko erlazioa. Chicagoren historia ulertzeko, aski da gunean egin diren aldaketa mailakatuak aztertzea. Nukleoa 1980ko hamarkadaren erdialdean eraiki zuten, Israelek Libano okupatu zuenean, eta garai hartan entrenamendu-gune txiki bat zen, Libanoko herrixka bat simulatzen zuena.

Ondoren, hiri-ingurune zabalagoa eraiki zuten, Israelgo indar bereziek entrenamendu-esparru bat izan zezaten; izan ere, Sadam Hussein hiltzeko operazioa prestatzen ari ziren (Irakeko Tikrit hirian egin behar zuten, 1992an, baina operazioa bertan behera gertatu zen: istripu bat gertatu zen, eta hainbat soldadu israeldar hil ziren). 2002an, are gehiago zabaldu zuten, une hartan Palestinan zeuden hirigune-mota guztiak simulatzeko, eta orain atal gehiago ditu: Kasbah izeneko eremu bat, kalezulo estuko merkatu-eremu trinko bat, iheslari-esparru bat simulatzen duen atal bat, kale zabalagoko hirigune bat eta landa-herri baten antzeko auzune bat. 2005eko udan, Gazako kokaleku juduak simulatzeko erabili zen, haiek ebakutzeko entrenamendu-saioetan.

BOST

«SUNTSIKETA ADIMENDUNA»

Jeningo iheslari-esparruaren suntsiketa neurrigabearen osteko nazioarteko protesta ozenaren argitan, Israelgo Armada ohartu zen bere ingeniariaren gorputzak «suntsipenerako trebezia» hobetu behar zuela, itxura batean kontrolik gabe baitzegoen. Horrek zera ekarri zuen, hiri-gerrako estrategietarako bestelako molde «adimentsu»agoetan inbertitzea; adibidez, baina ez bakarrik, Jeningo borrokaren hasieran erabilitako metodoak, baita arrakastaz Balatan eta Nablusen ere, orobat OTRIren lanean. Ikuspegi berri horren barruan, Defentsa Murru operazioa gertatu eta bi hilabetera, 2002ko ekainean, Israelgo Armada eskala errealeko hiri txiki bat egokitzen hasi zen. Tze'elim basean zegoen, Negev basamortuan, eta Chicago zuen izena (hala, Ameriketako Estatu Batuetako hiri balaz josiaren mitoa ekartzen zuen gogora). Hobekuntza hobekuntza, ekialdeko hiri bat irudikatzen zuen eta eraso militarrik praktikatzeko erabiltzen zen mundu mailako eskala errealeko maketarik handiena bilakatu zuten. Chicago maketak Kasbah izeneko eremu bat

du: hiribide estuko merkatu-eremu trinko bat, iheslari-esparru bat simulatzen duen atal bat, hirigune bat kale zabalagoekin eta tankeekin, eta landa-eremua irudikatzen duen auzo bat. Etxeetako hormetan zuloak daude eginak, soldaduek haietan zehar mugitzen trebatzeko. Entrenamendu-saio batzuetan, armadak Tel Aviveko antzoki ezagun bateko diseinatzaile eszenikoa kontratatu zuen, atrezzo egokiak hornitzeko eta efektu bereziak antolatzeko.

Garai hartan, beste eraldaketa batzuk azalerratu ziren ingeniari militarren alorrean. 2004ko martxoan Tel Aviven egin zen konferentzia militar batean, Israelgo ingeniari militar batek hau azaldu zion nazioarteko publikoari: arkitekturaren eta eraikuntza-teknologiaren ikerketaren bidez, «armadak eraikin bateko zoru bat ezereztu dezake hura guztiz suntsitu gabe [sic], edo eraikin-ilara bateko eraikin bakar bat ezereztu, gainerakoei kalterik egin gabe».⁵² Baiezta-pen hori gehiegizkoa da, noski; halere, erakusten du zer garrantzitsua den armadarentzat eraikin bateko elementuak eraikina bera ustez osorik suntsitu gabe ezerezteko gaitasun bere aburuz kirurgikoa; funtsean, ingeniari militarrek «arma adimendun»en logikara egokitzean datza.

52 Hemen aipatua: Hannan Greenberg, 'The Limited Conflict, This is How you Trick Terrorists', Yedioth Aharonoth, www.ynet.co.il.

SEI

HORMA DESHORMATUZ

Setio-gerretan, historikoki, hiri baten kanpoaldeko harresian zulo bat egiteak adierazten zuen suntsitua zela hiri-estatuaren subiranotasuna. Horrenbestez, setio-gerren «arte»ak zerikusi handia zuen harresien geometriarekin eta haiek bezain konplexuak ziren teknologiak garatzearekin, haietara iritsi eta haiek zeharkatzeko. Gaur egungo hiri-gerra, ostera, harresiek gorpuzten dituzten mugak gainditzeko metodoetan ardazten da gero eta gehiago. Hormak fisikoki haustea eta haietan zehar «ibiltzea» eskatzen duten taktika militarren osagarri, metodo berriak asmatu dira, soldaduek, horma sendoen bestaldekoa ikusteko gaitasuna izateaz gain, haietan zehar tiro egiteko eta etsaiak hiltzeko bidea ere izan dezaten. Ikerketa eta garapenaren alorrean diharduen Camero enpresa israeldarrak irudiak lortzeko eskuko gailu bat garatu zuen; banda ultrazabaleko radar bat du, eta horrek, gaur egungo amaetxeetako ultrasoinu-sistema edo ekografoen antzera, irudi termikoak aztertzen ditu, eta hesiaren bestaldeko bizitza biologikoa hiru

dimentsioko irudi batera ekarri.⁵³ Giza gorputzak «bero-marka» lauso gisa ageri dira, ingurune abstraktu lauso batean igerian (fetuen antzera), eta gauza solido oro —hormak, altzariak, objektuak— urturik bezala ageri dira pantaila digitalean. NATOren 5,6 mm-ko diametro estandarreko balak dauzkaten armekin batera, 7,62 mm-ko balak dauzkatenak ere erabiltzen dituzte, eta azken bala horiek adreilua, zura eta adobeaz zeharkatu dezakete, beren ibilbidea asko aldatu gabe. Praktika eta teknologia horiek erabateko eragina izango dute praktika militarren eta arkitekturaren —eta oro har ingurune eraikiaren— arteko erlazioan. Eta «gardentasun literal»eko instrumentuak ezinbesteko osagaiak dira mugarik gabeko jariakortasuna duen mundu fantastiko militar bat sortzeko, non hiri-espazioa ozeano bat (edo bideojoko bat) bezain nabigagarri bihurtzen baita. Hormen atzean ezkututzen dena ikusteko eta haietan zehar tiro egiteko ahalegin horretan, badirudi militarrek saiatu direla gaur egungo teknologiak metafisikaren mailara igotzen, errealitate fisikoko toki eta une honetatik harago joan nahian, denbora eta espazioa gaindituz.

Ezkutukoa ezagutzeko eta harresiaz «harago» joateko desira horrek azaldu lezake zergatik duen armadak halako interesa 1960 eta 1970etako teoria eta arte transgresoretan. Literalki, horretan zehar ibiltzeko teknikek Gordon Matta-Clark artista estatuba-

53 Zuri Dar eta Oded Hermoni, 'Israeli Start-Up Develops Technology to See Through Walls', Ha'aretz, 2004ko uztailak 1; Amir Golan, 'The Components of the Ability to Fight in Urban Areas', Ma'arachot, 384, 2002ko uztaila, 97; AEBko Defentsarako Ikerketa Aurreratuko Proiektuen Agentziak (DARPA) VisiBuilding programa jarri zuen martxan, eraikinak urrutitik eskaneatzeko eta barnealdean ikuspegi zehatzak sortzeko aukera emango zuen sensore-teknologiaren garapena sustatzeko. Ross Stapleton-Gray, 'Mobile mapping: Looking through Walls for On-site Reconnaissance', Journal for Net Centric Warfare C4ISR, 2006ko irailak 11.

tuarrak «horma deshormatzea» zeritzona gogorarazten dute.⁵⁴ 1971tik hil zen arte (1978), Matta-Clarkek eraikin abandonatuak eraldatzen eta birtualki eraisten jardun zuen. «Ebakinak eraikiz» izeneko obra horretan —baita mailuak, zizelak eta zerra-arkuak erabiliz anarkitekturaren (arkitektura anarkikoa) esparruan egin zituen lanetan ere—, eraikinak xerratu eta zuloak egin zituen etxebizitzetako eta industria-eraikinetako barrualdeetan.⁵⁵ Jardunbide hori etxeko esparruaren ordena errepresiboa eta esparru horrek irudikatzen duen boterea eta hierarkia iraultzeko saiakera gisa uler daiteke. Matta-Clarken «eraikinen ebakinak» OTRiren aurkezpen-materialeko toki nabarmen batean azaldu ziren, Israelgo Armadak palestinarren hormetan egingako zuloen ondoan.

OTRIk hiri-teoriaren beste bi erreferentzia kanoniko ere jorratu zituen: *dérivieren* praktika situazionistak (hiriko giro desberdinetan zehar noraezean ibiltzeko metodoa, situazionistek *psikogeografia* zeritzotena) eta *détournement* (eraikinak jatorrizko xedeez bestelako erabilera edo helburu berrietara egokitzea). Ideia horiek Guy Debord-ek eta Internazional Situazionistako beste kide batzuek plazaratu zituzten, hiri kapitalistaren hierarkia eraikiari aurre egiteko estrategia zabalago baten barruan. Haren helburua zen haustea esparru pribatuaren eta publikoaren arteko bereizketa, barruaren eta kanpoaren artekoa, erabileraren eta funtzioaren artekoa, eta espazio pribatua

54 Brian Hutton, 'The Problem of our Walls', *The Journal of Architecture*, 4. lib., 1999ko udaberria, 71. Krzysztof Wodiczko, Public Address, Walker Art Centre, Minneapolis, 1991, bi erakusketa hauekin batera argitaratua: Minneapolis-eko Walker Art Center-ekoa (1992ko urriaren 11tik 1993ko urtarrilaren 3ra) eta Houstongo Contemporary Arts Museum-eko (1993ko maiatzaren 22tik abuztuaren 22ra).

55 Pamela M. Lee, *Object to Be Destroyed: The Work of Gordon Matta-Clark*, Cambridge, MA: The MIT Press, 2001.

azalera publiko aldakor eta «mugarik gabeko» batez ordezkatzea, zeinean zehar mugimendua ustekabekoa izango baitzen. Georges Bataille-ren lana ere aipatzen zuten, hark arkitekturari eraso egiteko desira batez hitz egin baitzuen: armak hartzeko deia egin zuenean, bere helburua zen gerraosteko ordena baten arrazionalizazio zurruna desegitea, «arkitekturaren alkandora hertsagarritik» ihes egitea eta giza desira azpiratuak askatzea. Estrategia horien xedea zen urratzea hirian ezarritako «ordena burges» aurrez planifikatu eta gauzatua; ordena horretan, hormaren alderdi arkitektonikoa —domestikoa, hirikoa edo geopolitikoa (adibidez, Europaren gainean erori zen altzairuzko erreza)—, sendoa eta finkoa izateko pentsatua, errepresio sozial eta politikoaren gauzatzea zen. Hormak ez ziren hesi fisikoak soilik, ikusgai eta entzungai den guztia kanpoan uzteko gailuak ere baziren; horregatik, XVIII. mendetik aurrera, pribatutasuna eta subjektibitate burgesa eraikitzeko azpiegitura materiala ere eskaini dute.⁵⁶ Eta, izan ere, halaxe da: arkitekturari buruzko diskurtsoan, arkitekturaren zer menderaezintzat jo ohi dira hormak. Hormak hiriguneetako entropia naturalari eusten saiatzan diren ber gisan, haiek hautsiz gero molde sozial eta politiko berriak askatuko lirateke.

Ikusmolde, metodo eta garai desberdinez osatutako espektro bat irudikatu arren, Matta-Clark, Bataille, situazionistak eta Tschumi bat zetozen: hiri kapitalistaren botere zapaltzailea zen irauli beharrekoa. Israelgo militarrek, ostera, bestelako irakurketa egin zuten: se-

56 Robin Evans, 'The Rights of Retreat and the Rights of Exclusion: Notes Towards the Definition of the Wall', in *Translations from Drawing to Building and Other Essays*, Londres: Architectural Association, 1997, bereziki 38; Brian Hatton, 'The Problem of Our Walls', *Journal of Architecture* 4 (71), 1999ko udaberria, 66–67.

tiopian zeuden iheslari palestinar behartsuen habitat gutxi babestuari erasotzeko oinarritzat hartzen zituzten pentsalari horiek inspiratutako estrategiak.

Testuinguru horretan, kaleen eta etxeen arteko muga urratzea estatu-errepresioaren adierazpentzat jo behar da bete-betean. Zer-nola ulertzen zuen Hanna Arendt-ek esparru politikoa hiri klasikoetan, halaxe ulertu behar da hormaren eta ordena publikoaren arteko parekatzea. Arendtek zioenez, eremu politikoa bi horma-motak (edo horma lako bi legek) bermatzen dute: bata, hiria inguratzen duen horma, esparru politikoa zedarritzen duena; bestea, eremu pribatua eta esparru publikoa bereizten dituzten hormak, etxe-ko esparruaren autonomia bermatzen dutenak.⁵⁷ Ingelesez, lege/horma [law-wall] hitz-bikoteak egitura linguistiko ia palindromikoa eratzen du, eta horren bidez are gehiago bil daitezke bi kontzeptu horiek arkitekturaren eta legeen sareak parekotzat jotzen dituen interdependentzia batean. Horma deshormatzeak legea desegitea dakar ezinbestean. «Hormetan zehar ibiltzeko» jarduera militarrik —etxe edo hiri baten eskalan— eraikuntzaren propietate fisikoak eta ordena arkitektoniko, sozial eta politikoaren sintaxi hori lotzen ditu. Beraz, teknologia berriek, zeinak garatu baitira soldaduei ahalbidetzeko hormen bestaldeko organismo bizidunak ikustea eta paretetan zehar ibili eta tiro egitea, hormaren materialtasunari ez ezik, hormaren kontzeptuari ere heltzen diote. Horma jada ez da ez fisikoki ez kontzeptualki sendoa, ezta legez zeharkaezina ere; eta, beraz, hark eratutako sintaxi funtzional eta espaziala ezereztu egiten da. Iheslari-esparruei dagokienez, Agamben-en ohar ezagunak Arendtek

57 Hannah Arendt, *The Human Condition*, Chicago: University of Chicago Press, 1998, 63–64.

utzitako lorratzari jarraitzen dio: «Hiria eta etxea be-
reizezin bilakatzen dira».⁵⁸ Muga/horma fisiko, bisual
eta kontzeptuala zulatzeak botere politikoaren esku
uzten ditu esparru berriak, eta hala, «salbuespen-egoe-
ra» kontzeptuaren diagrama fisikorik esanguratsuen
marrazten du.

58 Giorgio Agamben, *Homo Sacer: Sovereign Power and Bare Life*,
Stanford, CA: Stanford University Press, 1998, 187.

ZAZPI

HERIOZKO TEORIA

Jakina, ez da berria teoria garaikidea xede militarretarako erabiltzea. Marko Aureliotik hasi eta Robert McNamara-raino,⁵⁹ botereak beti aurkitu izan ditu beste eremu batzuetan sortutako teoriak eta metodologiak erabiltzeko bideak. «Soldadu-poeta-filosofoa» mitologia sionistaren pertsonaia nagusi bat

59 Robert McNamara bereziki interesgarria da testuinguru honetan; izan ere, JFKren administraziopean —«onena eta bikainena» delakoan—, hainbat akademiko eta enpresa-zuzendari botere exekutibora goratu zituzten. McNamara Defentsa idazkari zela, kudeaketa teknokrataren teoria Pentagonoko gai militar guztietarako nonahiko hizkuntza bihurtu zen 1960ko hamarkadan. «Eredu» teorikoeak, sistemen analisiak, ikerketa operatiboak, «jokoen teoria»k eta zenbakietan oinarritutako kudeaketak gidatuta, McNamararen «haur prodijio»ek uste zuten gerra aurreikusitako kostuen, mozkinen eta heriotza-ratioaren negozio arrazionala zela, eta hura irabazteko ezinbesteko zela faktore horiek maximizatzea. Nahiz eta Pentagonoak, McNamararen agindupean, ahalegin handia egin zuen ereduak sortzen eta eredu horien arabera borrokatzen, gerrilla vietnamdarrak uko egin zion «kontsumitzaile eraginkor» gisa jarduteari «Pentagonoaren merkatu-ekonomian», edo «aurkari arrazional» gisa RANDen «joko teoretan»; hain da hala, ezen esaten baita ikuspuntu horren ondorioz Vietnamgo gerra behar baino gehiago luzatu zela. Paul Hendrickson, *The Living and the Dead*, New York, Vintage Books, 1997; Yehouda Shenhav, *Manufacturing Rationality*, Oxford: Oxford University Press, 1999.



Ezkerrean: Shimon Naveh. Eskuinean: Aviv Kochavi. (Bideo-irudiak: Nadav Harel eta Eyal Weizman, 2004)

ere bada. 1960ko hamarkadan, hezkuntza akademikoa israeldarren karrera militarreko ohiko osagai bihurtu zenean, ikasketak Ameriketako Estatu Batuetan egin ondoren Israelera itzultzen ziren goi-mailako ofizialek filosofiara jotzen zuten gudu-zelaia deskribatzeko; batzuetan, literalki aipatzen zuten Spinoza-ren «hedadura»ren kontzeptua 1967ko okupazio-garaiko guduen testuinguruan.

Teoriak jatorrizko xedeez haraindi erabiltzea ez da militarren kontua bakarrik. Negozioen munduan, ideia teoriko aurrerakoi eta transgresoreak erabili ziren kudeaketa-sistema postmodernoak antolatzeke, baita kultura teknologikoaren adierazle gisa ere. Humanitateen arloko hezkuntza ere, maiz inperialismo kapitalistaren aurkako armarik boteretsuentzat hartzen dena, botere kolonialak ere har lezake bere lan-tresnatzat. Hemen azaltzen ari garen kasu hau jada 1964an Herbert Marcuse-k ohartarazitakoaren frogapen bereziki izugarria da; alegia, gizartearen alderdi desberdinen arteko integrazio gero eta handiagoaren ondorioz, «kontraesana eta kritika» ere elkarrenga-

natu litezke, eta boterearen hegemoniaren zerbitzura dagoen funtsezko tresna eraginkor bihurtu; kasu hone-tan, estatu kolonialak teoria postestrukturalista eta are postkoloniala xurgatzeko eta eraldatzeko.⁶⁰

Kontua ez da Israelek egin berri duen eraso-aren errua teorialari eta artista erradikalei leporatzea, ezta haien asmoen zintzotasuna zalantzan jartzea ere. Halaber, nire asmoa ez da teoria zehatz batzuen «irakurketa», erabilera eta interpretazio militarra-ren zehaztugabetasunak eta gehiegikeriak zuzentzea. Gehien interesatzen zaidana da ulertzea zer modu desberdinetan jardun dezakeen teoriak esparru milita-rraan bere testuinguru etiko/politikotik ateratzean.

Teoriaren funtzio praktikoa edo estrategikoa, hau da, zer neurritaraino eragiten dien teoriak estrategia eta maniobra militarrei, teoriaren eta praktikaren arteko harremanari buruzko auzi orokorragoekin lotuta dago. Halere, baldin eta Israelgo Armadaren taktika berriak teoria postmodernoa zuzenean praktikara era-matearen ondorio badira, espero genezake taktika horiek estrategia tradizionaletik haustura erradikal bat ekartzea. Baina, egia esan, historikoki hiri-operazio militarren parte izan diren hainbat prozedura eta prozesuren jarraipena besterik ez dira. Gerra-ekin-tzak berritzaitez aurkezteak, aurrekaririk gabekotzat, edo aldarrikatzeak estrategia militarrek erro sako-

60 «Gizarte industrialak gero eta integratuago dagoenez, kategoria horiek konnotazio kritikoa galtzen ari dira, eta termino deskribatzaile, engainagarri edo operatibo bihurtzeko joera dute... Gizarte industrial aurreratuaren lorpenen izaera erabatekoaren aurrean, teoria kritikoa gizarte hau transzenditzeko oinarririk gabe geratzen da. Hutsuneak egitura teorikoa bera husten du; izan ere, teoria sozial kritiko baten kategoriak garatu ziren garaian, ukaziorako eta subertsiorako beharra indar sozial eraginkorren ekintzan islatzen zen». Herbert Marcuse, *One-Dimensional Man, Studies in the Ideology of Advanced Industrial Society*, Boston, MA: Beacon, 1991 [1964].

nak dauzkatela filosofia garaikide edo antzinakoan, horrek guztiak argi uzten du teoriaren hizkuntza ere arma bihur litekeela gaur egungo gatazkan. «Hormetan zehar ibiltzea» eta «erlauntz» kontzeptuak, baita ez-lineltasun militarra adierazteko erabiltzen diren beste termino batzuk ere, erakunde militarren egiturazko aldaketa batzuen adierazle izan daitezke; nolana ere, guztiz gehiegizkoa da baieztatzea bilakaera horiek eraldaketa erradikal bat osatzen dutela. Horrek berak zalantzan jarri behar luke teoriak benetan duen lekua praktika militarren eraldaketa errealean iturri sortzailer gisa.

Parisko Komunaren defendatzaileak —orain Aljerko kasbahko, Hue-ko, Beiruteko, Jeningo eta Nabluskoen ber gisan— talde txiki eta gutxi koordinatuetan ibili ziren hirian zehar, eta etxeen, sotoen eta atzeko patioen arteko irekigune eta elkarguneetan zehar mugitu ziren, bestelako bideak, ezkutuko pasabideak eta sabai-zuloak erabiliz. Bai Gillo Pontecorvo-ren *La battaglia di Algeri* [Aljerko gudua] (1966) filmean, bai Alistair Horne-ren Aljerri buruzko *A Savage War of Peace* [Bakearen gerra basatia] liburuan,⁶¹ maniobra horien nondik norakoak azaltzen dira, eta orain biak daude sartuta Israelgo eta Ameriketako Estatu Batuetako armaden hezkuntza-programetan.

Hormetan zehar mugitzeko teknika Marshal Thomas Bugeaud-ek jaso zuen idatziz lehen aldiz, 1849an, *La Guerre des Rues et des Maisons* [Kaleen eta etxeen gerra] eskuliburu militarrean, XIX. mendeko Parisen klaseen arteko hiri-guduetan matxino-taldeen aurka erabiltzen ziren taktiken testuinguruan.

61 Alistair Horne, *A Savage War of Peace: Algeria 1954–1962*, New York: Viking, 1978.

«Gotorregiak dira barrikadak tirailleusek [infanteria arina, oro har Frantziaren kolonietatik ekarritako soldaduek osatua] behera botatzeko? Hala bada, kalearen edozein aldetan lerrokatutako lehen etxeetan sartuko gara, eta detonagailuaren abantaila handiez baliatuko gara, laster erdiesten baitu xedea. Azken solairura igoko gara, eta horma guztiak zartaraziko ditugu sistematikoki. Eta, hala, barrikada zeharkatu ahal izango dugu».⁶² Barrikaden bestaldean eta hamarkada bat geroago, Louis-Auguste Blanqui-k maniobra mikroestrategiko hori gehitu zuen *Instructions pour une prise d'armes* [Arma hartzeko jarraibideak] liburuan.⁶³ Blanquiren ustez, barrikada eta sagu-zuloa hiri-barruti autogobernatuak babesteko elementu osagarriak ziren. Eta, hori hala izateko, ezinbestekoa izan zen hiri-sintaxia goitik behera iraultzea. Zirkulazio-elementuak (galtzada-harriak eta gurdiak) blokatze-elementu (barrikada) bihurtu ziren, eta benetako blokatze-elementuak (hormak), bide. Beraz, hiriko borroka, eta hiriaz jabetzekoa, hura interpretatu eta berrinterpretatzeko gaitasunaren pareko bilakatu zen. Jada hiria ez zen soilik gerraren gertalekoa; gerraren ingurunea bihurtu zen, eta, azkenik, haren aparatua.

62 Marshal Thomas Bugeaud, *La Guerre des Rues et des Maisons*, Paris: J.-P. Rocher, 1997. Eskuizkribua 1849an idatzi zuen, Dordoina-ko bere etxaldean, 1848ko matxinada berehala zapaltzeko ezgai izan ondoren. Ez zuen lortu liburua ezein argitaletxek ateratzea, baina tirada txiki bat banatu zuen lagunaren artean. Testuan, Bugeuadek proposatu zuen Parisko kaleak zabaltzea eta izkina egiten zuten eraikinak bidegurutze estrategikoetara aldatzea, ikus-eremu zabalagoa izateko. Haussmann-ek proposamen hori eta beste batzuk gauzatu zituen hainbat urte geroago; ikus Sharon Rotbard, *White City, Black City*, Tel Aviv: Babel, 2005, 181. [hebreeraz] Ikus baita Thomas Bugeaud, *The War of Streets and Houses*, Chapter 3: 'Offensive Against The Riot', hemen: <http://www.cabinemagazine.org/issues/22/bugeaud.php>.

63 Auguste Blanqui, *Instructions pour une Prise d'Armes*, Paris: Société encyclopédique française, 1972; ikus www.marxists.org/francais/blanqui/1866/instructions.htm.

Era berean, hormetan zehar ibiltzearen ideia, Sharon Rotbard arkitekto israeldarrak behin eta berriz esan bezala, ia historiako hiri-gudu bakoitzean berrasmatu da, beti tokiko beharrei eta gudu-baldintzei erantzunez.⁶⁴ Palestinan, baliteke 1948ko apirileko gudu batean erabili izana lehen aldiz, Irgun sionista —edo «Begin-en banda», britainiarren hitzetan— Jaffa okupatzen ari zenean. Talde hartako zultzaileek «lurgaineko tunelak» eraiki zituzten etxeetako hormen artean eta hiri-ehun jarraituan zehar; era berean, lehergailuak sartu zituzten bidean zehar, eta baita leherrarazi ere, itsasorainoko hondakin-zerrenda zabal bat eraikitze-ko; hala, bakartu egin zuten Jaffako iparraldeko auzoa, Manshiya, eta hiriaren gainerakotik bereizi.⁶⁵

Gaur egungo gerrari dagokionez, guztiz gehiegizkoa da «ez-linealtasun»az eta «hierarkia bertikalekiko haustura»z hitz egitea. «Autogestio»aren eta «hierarkia suntsitze»aren erretorikaz haraindi, sare militarrek hierarkia instituzional tradizionaletan oinarritzen dira oraindik neurri handi batean; hots, unitateek ordenak jasotzen dituzte oraindik, eta planei eta kronogramei jarraitzen diete. Erlauntzaren teknika ez-lineala sistema berez hierarkikoen azken fase taktikoan erabiltzen da.⁶⁶ Zisjordaniaren kasuan, maniobra ez-lineal batzuk egin ahal izan dira, Israelgo armadak hornitzelero lineal guztiak kontrolatzen dituelako oraindik, hau da, Zisjordania barruko bideak eta hura Israelgo

64 Rotbard, *White City, Black City*, 178.

65 Benjamin Runkle, «Jaffa, 1948, Urban Combat in the Israeli War of Independence», in Col. John Antal eta Maj. Bradley Gericke (ed.), *City Fights*, New York: Ballantine Books, 2003, 297.

66 Honi buruz gehiago jakiteko, ikus Ryan Bishop, «The Vertical Order Has Come to an End: The Insignia of the Military C3I and Urbanism in Global Networks», in Ryan Bishop, John Phillips eta Wei-Wei Yeo (ed.), *Beyond Description: Space Historicity Singapore*, Architext Series, Londres eta New York: Routledge, 2004, 60–78.

base handiekin lotzen dutenak, baita lurraldearen luze-zabalean eraiki dituen hesi lineal askoak eta gero eta ugariagoak ere. Izan ere, militarrek «sare» esaten dieten horiei (zati barreiatuen arteko kooperazio ez-hierarkikoa adierazi nahirik), teknikoki, «sistema» esan behar litzaieke, alegia, aginte zentralizatu bat duten egitura banatuak.

Gainera, «erlauntzaren teknika» eta «hormetan zehar ibiltzeko teknika» batez ere etsaia ahul eta desantolatu samarra denean izan daitezke arrakastatsuak, eta, bereziki, armadak abantaila handia duenean teknologiar, prestakuntzari eta indarrari dagokienez. Intifadaren urteetan, okupazio-indarrek jarraitu zuten imajinatzen gerrilla palestinar gaizki armatuen aurkako erasoak eta zibil ikaratuen aurkakoak —haien etxe kalamastretan— «guduak» zirela, eta haien balentriak, lorpen militar esanguratsuak. Operazio haietako herroitzat koroatu zituztenen harrokeriak denbora batez baino ezin du ezkutatu estrategia horren epe luzeko *impassea* eta ezereztasuna, ergelkeria politikoa, krudelkeria militarra eta bizitzen eta duintasunaren xahutzea.

Israelgo Armadako soldadu eta ofizialak urte luzez aritu ziren palestinar erakunde ahulei erasotzen, «Joko Handi» moduko batean, eta horrexegatik, besteak beste, 2006ko udan ezgauza agertu ziren Libanon Hezbolako borrokalari indartsuago, armatuago eta ondo prestatuen aurrean. Hara: Gazako eta Libanoko porroten ardura handiena zuten bi ofizialak zein izango eta, «haur prodijio» militar israeldarrak, OTRiko graduatuak, 2002ko Balatako eta Nablusko erasoetako beteranoak: Aviv Kochavi (Gazako dibisioko komandantea 2006ko udan) eta Gal Hirsh (Ipar Galileako 91 dibisioko komandantea 2006ko udan). 2006ko ekainean, Israelgo Armadaren gotorlekuaren azpian

tunelak eraikitzen ari ziren gerrillari palestinarrek soldadu israeldar bat bahitu zuten, Kochavi agintean zela, eta, hurrengo hilabetean, Hezbolak bi soldadu israeldar bahitu zituen Hirshen aginte-eremuan. Horren ondoren etorri ziren Gazako palestinarren aurkako zigor-erasoak Kochavik zuzendu zituen, eta bere ohiko hizkuntza nahasian berbetan jarraitu zuen: «Gure helburua da kaosa sortzea alde palestinarrean, toki batetik bestera jauzika ibiltzea, handik ospa egitea eta berriz itzultzea... Okupazioaren abantailak barik, erasoaldiaren erabiliko ditugu». ⁶⁷ Ehunka zibil hil bazituzten ere, eta funtsezko azpiegiturak suntsitu, ez zuten lortu soldadua berreskuratzea edo palestinarrek suziri gehiago ez jaurtitzea. Libanoko frontearen oihartzuna bailitzan, Hirschek ere galdegin zituen «erasoak, ez okupazioa», eta berriki beraren agindupera batuak ziren eta artean berak OTRIn bereganatutako hizkuntzara ohituak ez zeuden batailoiei agindu zien Libano hegoaldeko hiriguneetan erlauntzaren teknika erabiltzeko eta haiek soldaduz infestatzeke. Hirschek komando operatibo bat antolatu zuen Libano hegoaldeko Bint Jbeil herria mendean hartzeko, gerora burla ugari jasoko zituena, eta hari zuzendutako jarraibide-multzo konplexu hau idatzi zuen: «Indar armatuek zalaparta txikiko baina eskala handiko infiltrazio bat egin behar dute. Lehenik, kontrolguneetan azkar kokatu; gero, kontaktu hilgarria sortu eremu eraikietan (erlauntzaren teknika baliatuz); gero, “ezustean harrapatu eta izua zabaldu”, ekintza-espazio osoa izozteko; gero, taktika aldatu, eta herritarrak menderatu; eta hori guztia etsaiaren azpiegituraren deseraikitze sistemiko-espazial bat egin

67 Hannan Greenberg, «The Commander of the Gaza Division: The Palestinians are in shock», Ynet, 2006ko uztailak 7, www.ynet.co.il.

bitartean (“okupazioa”)).⁶⁸ Alabaina, haren mendekoek ez zuten ulertu termino horien esanahia, eta ez zuten ideiarik ere zer egin behar zuten. 2006ko Libanoko gerraren ondoren, Hirschek kritika gogorak jasan zituen; harrokeria, intelektualismoa eta jendetasun falta ego-tzi zizkioten, eta soldadutza uztera behartu zuten.

Emaitzei buruz hausnartzean, Navehk ere jendaurrean onartu zuen: «Libanoko gerra porrot hutsa izan zen, eta nik erantzukizun handia izan nuen horretan. Huts egin du Israelgo Armadari egin diodan ekarpenak».⁶⁹ Egia esan, Israelek Libanon egindako kanpaina militarrek anabasa itzela sortu zuen. Israelgo Armadak, gero eta zapuztuago, etengabe eta indarrez bonbardatu zituen Libanoko herriak eta mugaldeko hiriak, eta zementuz, kristalez eta metal bihurrituz osatutako topografia bat utzi zuen. Paisaia arrotz hartan, hondakin-muinoak zuloz josiak ageri ziren, eta zuloak lurpeko gelak ziren, defendatzaileen babesleku. Hezbolako borrokalariek, haiek ere erlauntzaren teknika erabiliz mugituz hondakinen eta zaborraren artean, lurrzapiko sotoetan eta berek prestatutako tuneletan zehar, soldadu israeldarren mugimenduak aztertzen ziztuzten, eta tankeen aurkako armekin erasotzen zieten etxe barruetan sartu eta haietan zehar aurrera egiten saiatzen ziren unean —hau da, Zisjordaniako hirietan eta iheslari-esparruetan egin ohi zuten bezala—.

68 Ofer Shelah eta Yoav Limor, *Captives in Lebanon*, Tel Aviv: Yedioth Aharonoth Books, 2007, 197 [hebreeraz].

69 Amir Rapaport, «Dan Halutz is a Bluff, Interview with Shimon Naveh», *Ma'ariv*, Yom Kippur Supplement, 2006ko urriak 1.

ZORTZI

GATAZKA INSTITUZIONALAK

Lehenago erakutsi bezala, Israelgo Armadak ez zuen Deleuzeren behar handirik Nablusi erasotzeko, eta, operazio militarren errealitatean, Paul Hirst-ek behin sarkastikoki adierazi bezala, «gerra-makinek gasolinarekin eta ikatzarekin funtzionatzen dute»,⁷⁰ eta «organorik gabeko gorputz»ek hildakoak denotatzen dituzte. Nolanahi ere, teoriak, Israelgo Armadaren barruan jasan zuen eraldaketa garaikidearen kasuan, hizkuntza berri bat ekarri zion armadari, bai barrurako, bai besteekiko solaserako. Ideia eta sentsibiltate berriak artikulatzen lagundu zien, baina, batez ere, baliagarri izan zitzaien esperientzia militarren eta ezagutza praktikoaren askotariko eremuetan banabanaka sortutako ideiak azaltzeko, argudiatzeko eta komunikatzeko. Une batez alde batera utziz gero praktikan oinarritutako teoriaren alderdi operatiboa, agian ulertu ahal izango dugu zer-nola islatzen den armadak

70 «Sareak, oro har, hierarkietan txertaturik egon ohi dira, nomadek gamelu gainean eta lapurretan ibili besterik ez dute egiten, eta gerra-makinek gasolinarekin eta ikatzarekin funtzionatzen dute». Paul Hirst, *Space eta Power: Politics, War and Architecture*, Londres: Polity, 2005, 4.

darabilen hizkuntza teorikoa armadan bertan, instituzio gisa ulertuta.

Alde horretatik, adierazgarria da Navehk nire galdera bati emandako erantzuna. Erabiltzen dituen teoriaren oinarri ideologiko eta politikoen bateraezintasunari buruz galdetu nion, eta hau erantzun zidan: «Gauza bat da ideologia marxistaren lilura, eta are haren zenbait balio, eta beste bat haren zer parte bali daitekeen armadan. Teorien helburu bakarra ez da ideal soziopolitiko utopiko bat erdiestea, zeinarekin ados egon gaitezkeen ala ez; horrez gain, teoriak egungo ordena politiko, sozial, kultural eta militarrean haustura eta eraldaketa eragin nahi duten printzipio metodologikoetan oinarritzen dira. Teoriaren gaitasun haustailea [beste nonbait Navehk “teoriaren gaitasun nihilista” aipatu zuen], horixe da guk atsegin eta erabiltzen dugun alderdia... Teoria hori ez dago ezinbestean lotuta haren ideal sozialistekin».

Navehk «haustaile» eta «nihilista» terminoak baliatzen dituenean teoria nola erabiltzen duen azaltzeko, jokoan dagoena ez da soilik palestinarren aurkako eraso bat. Kasu honetan, teoria ez da palestinarren aurkako gatazkarako baliabide huts bat; batez ere, armadaren barruko botere-borrokarako baliabide bat da. Teoria kritikoak hizkuntza berri bat ematen dio armadari (batzuetan akademiari eman izan dion bezala), eta hizkuntza horrek aukera ematen dio egungo doktrina militarrei aurre egiteko, dogma zaharkituak txikitzeko eta hierarkia instituzionalak —eta haien eskuetan den ezagutzaren «monopolioa»— iraultzeko.

1990eko hamarkadan zehar, Mendebaldeko armadak berregituratu eta espezializatu egin ziren, beren jardunean goi-mailako teknologiak eta kudeaketa-tresna informatikoak txertatuz, hala nola zenbait

neokontserbadorek —Donald Rumsfeld-ek eta bestek— sustatutako eraldaketa; eta, aldi berean, erakunde barruko oposizio handi bati aurre egin behar izan zioten. 1990etako lehen urteetatik, Israelgo Armadak ere gatazka instituzionalei aurre egin behar izan die, bere garapenaren eta eraldaketaren testuinguruan. Gatazka instituzional horien testuinguruan, teoria postestrukturalistaren hizkuntza erabili zuten orduko sistemaren aurkako kritika artikulatzeko, eraldaketen alde egiteko eta berrantolaketa handiagoa eskatzeko.⁷¹ Navehk onartu egin zuen hori, adierazi baitzuen OTRik «batez ere erakunde militarra —haren oinarri kontzeptual finko eta astunak...— kritikatzeko erabili zuela teoria kritikoa».

Israelgo Armadaren barne-gatazka horien zati bat agerian geratu zen bi gertaera zehatzek eragin zuten polemika mediatikoaren testuinguruan. Alde batetik, 2006ko maiatzean, OTRI itxi zuten. Bestetik, Libanoko gerra lehertu baino aste batzuk lehenago, Naveh eta bere zuzendarikide Dov Tamari armadatik bota zituzten, eta, hilabete batzuk geroago, Hirschek dimisioa eman zuen. Eztabaida horiek argitara atera zituzten Israelgo Armadaren bi alderen arteko arrakalak: OTRIrekin bat egiten zuten ofizialak, zeinentzat Naveh guru moduko bat baitzen, eta Navehri, haren metodoei eta haren hizkuntzari aurre egiten zietenak.

Ofizialki, Navehren kargugabetzea zera izan zen, Israelgo Armadako Estatu Nagusiaren buru Dan

71 Navehk teologia juduaren munduko metafora batekin azaldu zuen: «Hassidim-en eta Mitnagdim-en arteko gatazka instituzional bat» da... Mitnagdim hitzak «aurkariak» esan nahi du hebreeraz, eta XVIII. mendearen amaieratik aurrera judaismo hassidikoaren praktika erlijiosoan aurka egiten zuten judu askenazi ortodoxoak adierazteko erabiltzen da. Termino hori, orokorrean, testuinguru juduetan erabiltzen da, berrizaleen eta kontserbadoreen artean gertatzen diren barne-gatazka instituzionalei buruz berba egiteko.

Halutz-ek emandako erantzuna Israelgo Armadako Estatuko kontu-ikuskari Michael Lindenstrauss-ek ofizialen prestakuntzaren egoerari buruz egindako txostenaren hasierako zirriborro bati. Txosten hartan OTRiko langileei egozten zitzaizen eskolak ahoz ematea, hitzaldi eta mintegien bidez, terminologia zail eta anbigua ulertzea erraztuko lukeen libururik edo hiztegi teknikorik argitaratu gabe; kontzeptuek zehaztugabe izaten jarraitzen zuten, eta «interpretazio desberdinetarako bidea eman zezaketen, eta nahasmena sortu...» (hori aditu postmodernoen goraipamen inplizitu gisa ere uler liteke). Txosteneko beste atal batzuetan, Navehri eta Tamariri egozten zieten kudeaketan irregulartasun batzuk egin izana, nahiz eta gero errugabetzat jo zituzten.⁷² OTRI bat zetorren Estatu Nagusiko buru ohi (eta Halutzen aurkari) Moshe Ya'alon-ekin, zeinak Israelgo Armadaren eraldaketa-prozesuaren erdigunean jarri baitzuen institutua. Halutzek ez zien zuzenean aurre egin OTRik sortutako kontzeptu teorikoei; aitzitik, kritika hori Defentsa Eskola Nazionalen komandante ohi Yaakov Amidror-ek artikulatu zuen. Amidror orain segurtasun-analista da esparru zibilean; garai hartan, baina, mugimendu nazional-erlijiosora eta eskuineko kolonoen mugimendura afiliatutako lehen jeneraletako bat izan zen. Berak lurraldearen kontrolari buruz duen ikuspegia OTRik duenaren guztiz bestelakoa da:

72 Estatuko kontu-ikuskariak azalpenak eskatu zituen, Navehk lanaldi partzialeko kontratu bat zuelako Tel Aviveko unibertsitatean eta ikerlariak ordainsari handia jasotzen zutelako aparteko orduengatik. Geroago, Israelgo Armadako giza baliabideetako komandanteordeak egindako ikerketa batek susmopetik atera zuen OTRI, baina Estatu Nagusiak ikerketari buruzko informazioa eman zien komunikabideei isilean. Ikus Caroline Glick, «Halutz's Stalinist moment: Why were Dovik Tamari and Shimon Naveh Fired?», Jerusalem Post, 2006ko ekainak 17 eta Rapaport, «Dan Halutz is a Bluff». Gaur egun, Navehk AEBko Marineen Garapen Komandoan lan egiten du, aholkulari erretiratu gisa, «Expeditionary Warrior» esperimentu operatiboaren barruan.

behin eta berriro errepikatu zuenez, «ezinezkoa da terrorearen aurka borrokatzea presentzia fisikorik gabe eta lurraldea kontrolatu barik»,⁷³ eta, beraz, Lurralde Okupatuetatik erretiratzearen guztiz kontrakoa izan zen beti. OTRi dagokionez, uste zuen «konplexutasun teorikoa» erabat kontrajartzen zaiola boterearen logika operazionalari: «Ona da institutua [OTRI] itxi izana, eragin katastrofikoa baitzuen armadan... Hizkera mordoiloa zuen, eta ez zuen hizkuntza argia erabiltzen... Ez zegoen prest egia eta gezurra bereizteko, Israelgo Armadara eraman zuen tradizio postmodernoare arabera... Zinezko inbidia diet [irakasten dutena] uler-tzen dutenei, nik ez baitaukat horretarako gaitasunik, ezta hurrik eman ere».⁷⁴ Navehren arabera, Amidrorek, ostera, gorpuzten du Israelgo Armadaren «enpirikotasun militarren idealizazioa, ikasketa teorikoaren eta ikerketa kritikoaren balioarekiko arbuioa... diskurtso kontzeptualarekiko inpazientzia, literaturaren teoriarekiko ezaxolakeria eta diskurtso filosofikoarekiko intolerantzia». Tartean egon zitezkeen beste arrazoi batzuk alde batera utzita, Navehk ikusarazi zuen «OTRIren eta teoriaren aurkako kolpe» baten ondorioz bota zutela bera.⁷⁵

Beraz, eztabaida militar hori Israelgo gizartean oro har gaur egun dauden desberdintasun politikoe-kin lotuta zegoen. Navehk, baita OTRiko haren kide ohi gehienek ere, Israelen «ezker sionista» deitzen diotenarekin bat egiten dute, eta ezker horrek lurralde okupatuetatik erretiratzea aldeztu du. Kochavi ere, zeinak gogo onez onartu baitzuen Gazako kokalekuak

73 Yaakov Amidror, «There is no Remote Control Wars», Ha'aretz, 2006ko uztailak 4.

74 Yaakov Amidror, «Catastrophe to Military Thought», Makor Rishon, www.makorrishon.co.il; <http://www.makorrishon.co.il/show.asp?id=13186>.

75 Rapaport, «Dan Halutz is a Bluff».

ebakuatzeko eta suntsitzeko operazio militarren agintea, «ezkerreko» ofizialtzat jotzen da, hurrengo urtean Gazan leporatu zizkioten izugarrikeriak gorabehera. Hala, bada, Israelgo Armadaren barruko teoriari buruzko gatazkaren parte batek zerikusitua handia zuen armada barruko gatazka politikoekin.

Kontuz, baina. Ez da ulertu behar Israelgo ofizial «ezkertiar»ek alternatiba itxaropentsu bat eskain dezaketarik Israelgo Armada oro har basatiaren aurrean; egia esan, justu kontrakoa ere esan daiteke. 2002an Jeninen eta Nablusen aurka egin zituzten erasoak alderatuz gero, paradoxa bat azalera liteke: lurralde okupatuetatik ospa egitea aldeztu duten ofizial «buruargi»en eragina oro har suntsigarriagoa izan daiteke. Ados, horma bat zulatzea ez da etxea erabat suntsitzea bezain izugarria, baina okupazio-indarrak ez badira gai iheslari-esparruetan sartzeko haiek suntsitzeko beharrik gabe, Jeninen egin bezala, eta aintzat hartuz tokiko eta nazioarteko oposizioa, ziurrenik saihestu egingo dute iheslari-esparruak erasotzea, edo behintzat ez dituzte hainbestetan —hau da, ia egunero— erasoko, orain egiten duten bezala, lan hori «merke» egiteko bidea aurkitu dutelako. Hala, Israelgo ezkerren logika militarren irtenbide estrategiko bat eskaini dio arazo politiko bati.

OTRik garatutako estrategia berrien xede nagusietako bat da Israelek, fisikoki eremu palestinarretan egon barik ere, hango segurtasuna kontrolatzea. Naveharen arabera, Israelgo Armadaren paradigma operazionalaren xedea izan behar litzateke eremu okupatuetan egon behar izateari utzi ahal izatea eta, trukean, haietan zehar mugitzeko gaitasuna eskuratzea eta berak «eraginak» zeritzenak sortzea haietan, hau da, «operazio militarren, hala nola aireko erasoak edo komandoen

sarekadak... etsaiari psikologikoki eta antolamendua-
ren ikuspegitik eragiten diotenak». OTRIn eta Israelgo
Armadaren agindupeko beste erakunde batzuetan gara-
tutako estrategien helburua da baliabideak eskaintzea
lurraldearen gaineko nagusitasunaren eredu zaharra
alde batera uzteko eta haren ordeztu «deslurraldetasun»-
eredu berriago bat jartzeko; OTRik horri «desagertze
bidezko okupazio» esaten zion.

Lurraldeari buruzko ezin konpromisotarako
—erretiratze partziala eta aldi baterako muga-lerroak
zehaztea—, Israelek hainbat aurrebaldintza ditu; eta,
Gaza ebakuatu ondoren duela gutxi hura berriz inbadi-
tu izanak erakutsi bezala, aurrebaldintza horien funtsa
da Israelek ahalmena izatea berak larrialdi-egoeratzat
jotzen duen edozein unetan agindutakoa bertan behe-
ra uzteko eta lurralde palestinarretan sartzeko. Osloko
Akordioetan jasotako baldintzen arabera, Israelek hiri
eta herri palestinarretatik alde egiteko ezinbestekoa
zen salbuespen-klausula bat onartzea; klausula ho-
rren arabera, Israelek eskubidea zuen, berak zehaztu
ahalko zituen egoera jakin batzuetan, «palestinarrei
berehalakoan jazartzeko», hau da, palestinarren kon-
trolpeko eremuetan oldarka sartzeko, auzo eta
etxeetan susmagarrien bila aritzeko eta pertsona ho-
riek zaintzapean eramateko, Israelen galdekatzeko eta
han kartzelatzeko.⁷⁶

Estatu palestinar behin-behineko eta zatika-
tu baten muga markatu lezakeen Harresiari buruz,
Navehk honela zioen: «Niri berdin dit zer bide auke-

76 Hebrongo Akordioari buruzko prentsaurreko batean, Benjamin Netanyahu ministro ohiak berba hauek esan omen zituen: «Berehalako jazarpena bigarren mailako kontu bat da. Arazo orokor baten adibide zehatz bat da, eta arazo orokorra da Israelek izan beharreko ekintza-askatasuna bere herritarrak babesteko, dauden tokian daudela. Eta edonondik datorren edozein mehatxuren aurka». Kanpo Arazoetako Ministerioa, www.mfa.gov.il.

ratzen duten [politikariek] hesia [Harresia] eraikitzeko, baldin eta hesi hori zeharkatzea badaukat. Ez dugu beharrezko han egotea, ezpada... han jardutea [horretarako gai izatea]... Handik erretiratzeak ez du istorio honen amaiera ekarriko».

Israelgo Armadak lurralde okupatuetatik erretiratzekeo jarritako aurrebaldintzak —Navehren iruzkin honetan artikulatua: «...baldin eta hesi hori zeharkatzea badut»— esan nahi du erretiratze baldintzatu bat dela eta adostu bezain laster utz daitekeela bertan behera. Zalantzarik gabe, horrek baliorik gabe uzten du mugen ustezko izaera simetrikoa, Zisjordaniako Harresiaren ikonografiaren bidez gorpuztua, baita oraintsuko erretorika diplomatiko guztiaren bitartez ere, zeinak estatu palestinarantz jo nahi bailuke harresi horren bestaldean geratzen den edozein gobernu-sistema (neurri batean edo bestean zatikatua edo zulatua izanik ere). Harresia alde bakarretik ikusten den artean etengabe iragazkor eta garden, Israel oraindik ere subiranotzat jo behar litzateke lurralde palestinarretan, besterik ez bada ere Israelek berak deklaratu dezakeelako «muga» horren estatus legalaren indargabetzea ekar lezakeen salbuespena. Alde horretatik, «estatu-harresi» eskerga honen ideia lurralde okupatuetao etxeetako hormen antzera gorpuztu da: ingurune garden eta iragazkor bat da, Israelgo Armadari aukera ematen diona hortik zehar «leuntasunez» mugitzeko. Kochavik esaten duenean «espazioa interpretazio bat baino ez dela», eta hiri-ehunetan zeharreko eta luzekako mugimendu horrek elementu arkitektonikoak berrinterpretatzen dituela (hormak, leihoak eta ateak), eta Navehk baieztatzen duenean edozein muga onartuko lukeela baldin eta hartan zehar ibil badaiteke, biak ala biak ikuspegi teoriko transgresorea erabiltzen ari dira adierazteko ge-

rrak jada ez duela zerikusirik espazioa suntsitzearekin, baizik eta hura «berrantolatze»arekin. «Alderantzizko geometria»k, zeinaren helburua baitzen esparru pribatu eta publikoa berrantolatzea eta hiria «barrukoz kanpora» jartzea, orain ere antzera jokatuko luke: «estatu palestinarra» Israelen segurtasun-arazoetan txertatuko luke, eta transgresioz josi, horma deshormatzen saiatzeko.



Desfile bat Gazan; parte-hartzaileak maketa bat erretzear dira (Reinhard Krauss, 2001)

